



Spartan Race-ko Munduko txapeldun



Toribio Etxebarria, 1

EUKI
servicios inmobiliarios

*20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan*



bitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Jokin Alonso

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

Sagardo Egunaren inguruan

Aurreko zapatuan ...eta kitto! Euskara Elkartea XXVI. Sagardo Eguna antolatu zuen. Goizean goizetik giro itzela eta Untzaga plaza jendez lepo, beste behin ere. Horregatik, lerro hauen bitartez, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Untzagara gerturatu ziren guztiei eta zelan ez, lanera etorri zen lantalde izugarriari. Baina aurtengo Sagardo Egunak argi-ilunak ere izan ditu, eta hain justu, alde ilun hori da ...eta kitto! Euskara Elkarteko Zuzendaritzak salatu nahi duena. Udalaren baimena idatziz jaso genuen, urtero bezala, eta bertan, hitzez hitz adierazten da "Udalak berak eramango ditu materialak behar den lekura. Udalak berak jasoko ditu materialak jarduera egiten den lekutik". Baina Sagardo Egunaren bezperan, Udaletik deitu ziguten esanez, material guztia Untzaga zinea ze-

goen lokaletik jaso behar genuela guk eta bertan laga behin amaitu eta gero. Zinetik udaletxe aldeko plazara eta bueltan mugitu behar izan dugun materiala hauxe izan da: 45 ohol, 90 kaballete eta sukaldeko tresneria guztia. Eta horri gehitu goizean errepidea itxi gabe zegoela eta iluntzean zine ingurua jendez bete-beteta (tartearen ume asko) eta ilun. Pentsa, material guzti hori zineraino mugitzea zer izan zen! Udalaren erabaki horrekin ez gaude ados, eta are gutxiago bezperan abisatzearekin, idatzizko baimenean beste gauza bat agindu zitzaigunean. Egoera hori salatzean egin ziren bi geldiuneak Sagardo Egunean. Horrez gain, Zuzendaritzak, bilera eskatuko du Udaleko ordezkariekin gaia argitzeko.

...eta kitto! Euskara Elkarteko Zuzendaritza

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOLDAKATX / MOLDAGATX / MOLDEKATX.- Baldarra, torpea, moldatzen trebea ez dena.
"Ume moldakatxagorik ez dot ikusi bizizan".

astean esanak

"Gizarte oso higienista batean bizi gara. Guztiari beste kolore eta usain batzuk emateko nahia daukagu. Evax-ek esaldi bera erabiltzen du azken hamabost urteetan: *Usaina kentzeko produktu berri bat asmatu dugu.* Hamabost urte daramatzate produktu *berri* horrekin. Hilekoari lotutako produktuen kanpainetan ez da agertzen ez odolik, ez kolore gorririk; hilekoaren kolorea urdina edo arrosa oso argia izaten da. Garbiketa produktuen iragarkiak urdinak dira. Ur botilenak ere hala izaten dira, purutasuna iradokiz"

(ITXASO FERNANDEZ, PUBLIZITATE IKERLARIA)

"Norbaitek bere agendan sartzen banau, eta agenda hori nahi ez nuen enpresa bateko zerbitzu batean badago, automatikoki nire datu horiek edukiko ditu, nik nahi edo ez. Daturik ez sortzea edo zure pribatasuna hobetzeko zifratze mekanismoak erabiltzea, besteek ez badute erabiltzen, hori ere datu bihur daiteke zure kontra, zu susmagarrien zakuan sartzeko. Unea iritsi da esateko arazo hau bakarka konpontzerik ez dagoela. Ez dago norbanakoen esku gure datuekin zer eta nola egiten den erabakitzea. Jendartearen aldeko politika publikoak beharrezkoak ditugu datu trataeran: txertaketa digital kanpaina beharrezkoa da"

(GORKA JULIO, ZUTABEGILEA)

"Gaur egun askok erre egingo luketen Emmanuel Kant-ek zioen moduan, inork ez du beste batek baino eskubide gehiago toki batean egoteko. Errefuxiatuek etortzen jarraituko dute lan egiteko eta esportatzeko aukera ematen ez diegun artean. Desberdintasuna arazo larrienetakoa da gaur egun: batzuk aukera oso gutxi dituzte beste batzuk diruaren noblezian sartu diren bitartean. Estatuak dirua bildu behar du eta, gehien dutenek libratzen doazen neurrian, klase ertaina gero eta estuago dago. Kontuz hitzekin ere: orain kontserbadoreek euren buruak liberalizatzen dituzte; bata ala bestea, hor kontraesana dago"

(ENRIQUE SAEZ, EKONOMILARIA)



Armagintza ezagutzera emoteko jarduerak Museuan

Armagintzaren Museuak Ondarearen Europako Jardunaldixekin bat egin dau, "Maisu armagiñak, urdiñez jantzitako artisauak" programia prestatuta. Holan, urrian zihar hainbat jarduera egingo dittue, tradiziño armagiña ezagutzera emoteko asmuarekin. Aurreko asteburuan errealidade birtualerako betaurrekuak egitten jardun eben. Bixar eta hurrengo zapatuan, barriz, arma-taillarra eta probaderua ezagutzeko bisita birtuala egingo dabe, horretarako errealidade birtualerako betaurrekuak erabillitta. Eta, horrekin batera, urriaren 19xan Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko dohaiñeko bisita gidatuak egingo dira (17:00etan euskeraz eta 18:30xetan gaztelerez). Izena emoteko 943 708446 telefono zenbakira deittu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi leike.

Lehen sorospenen inguruko ikastarua

DYA alkartekuak Oiñarrizko Lehen Sorospen ikastarua emongo dabe Eibarren daken ordekaritzan (Pagaegi, 5), urriaren 21etik 25era, 19:00etatik 21:00etara (10 ordu). Edozeiñek hartu leike parte eta klasietara doiazanak eguneroko martxan agertu leikiazan arrisku ohikueneri (Bihotz Birika Susperketa, zaurixak, hausturak, erredurak...) zelan aurre egin ikasiko dabe. Ikastarua 40 euro balixo dau eta izena emoteko zein informaziño gehixago eskatzeko 943 464622 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, www.DYAgipuzkoa.com helbidian sartu.



Ibar-gain itxitta hiru astetan

Udaltzaingotik aditzera emon dabenez, Pagaegi kaltetik Jardiñeta kalera doian bidian oiñezkuak hobeto ibilli ahal izateko egitten diharduen biharrak dirala eta, Ibar-gain kalia itxitta egongo da urriaren amaierara arte. Hortaz, eta biharrak amaittu bittartian, Ibar-gaiñera sartu edo urtetzeko bariantetik juan biharko da.

Herriko dendarixen promoziñuak

Eibarko Dendarixen Elkartekuak tonbolia antolatu dabe aurten be. Urriaren 15etik azaruaren 5era bittartian alkarteko kidiak diran dendetan zeozer erosten daben bezero guztiak hartuko dabe parte tonbolan eta millaka opari eta deskontu berezixak irabazteko aukeria eukiko dabe. Bestalde, Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak "Bizi Errebal" kanpaiña hasiko dabe astelehenian: urriaren 14tik 31ra bittartian Errebal inguruan kanpaiñarekin bat egin daben 42 establezimenduetan erosketak egitten dittuenen artian 10.000 euro banatuko dittue, erosketa-bonuetan. Gastatzen dan diruaren arabera, bezeruari 2, 5, 10, 20 edo 50 euroko erosketak egitteko txartelak emongo detsez.



dica® **eibar**

URRATEGI INTERIORISMO

www.urrategiinteriorismo.com

Arragueta 27
 Telf: 943 857 244

s
u
k
a
l
d
e
a
k

d
i
s
e
i
n
u
a





“Kriston kintadiak” herri guztia ipiñi eben dantzan

Aurreko zapatuan 1986xan jaixotako 60 bat lagun alkartu ziran, Untzagan talde argazkixa egin eta, ondoren, Arraten alkarrekin bazkaltzeko. Jaixaren ondoren kontau dabenez, “illuntzian, musikarekin kalejiran ibilli giñan eta gure inguruan demaseko girua sortzen jua zan eta Toribio Etxebarrian eguan jende guztia gurekin

batera dantzan ibilli zan: izan be, Sagardo Egunion egon zan jendia, beste bi kintadetakuak... gurekin alkartu eta, azkenian, 300 bat lagun baiño gehixago bildu giñan!”. Bide batez, bazkarira juandakuak eskerrak emon nahi detsez jaixa antolatu eben laguneri, Jon Baranguan, Pablo Badiola, Ander Lastra eta Laura Ortizeri.



autuan

KINTADETARAKO IZEN-EMOTIAK

Azaruaren 15ian alkartuko dira 1937xan jaixotakuak, Unzaga Plaza hotelian alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 55 euro sartu biharko dau, Kutxabankeko ES13 2095 5035009115389087 kontu korrante zenbakixan, izen-abizenak ziheztuta. 1969xan jaixotakuak, barriz, urriaren 26xan alkartuko dira. Honezkero 150 lagunek emon dabe izena, baiña oindiok badago jende gehixagorako tokixa. Animau ezker 95 euro sartu bihar dira Caixabankeko ES39 2100 4168 75 21 0035 2191 kontu korrontian, izen-abizenak ipiñitta. Eta 1974xan jaixotakuak azaruaren 9xan egingo dabe euren jaixa eta parte hartu nahi dabenak 90 euro sartu biharko dittu Laboral Kutxako ES57 3035 0007 21 0070066061 kontuan, izen-abizenak ipiñitta (epia urriaren 20xan amaittuko da).

2019-20 IKASTARO KATALOGOA

LANGILE NAHIZ LANGABETUENTZAKO DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK IRAILETIK EKAINERA

Espezialitateak:

- AUTOMATIZAZIO ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- INDUSTRI DISEINUA ETA FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA


ArmeriaEskola^x

Izen-ematea:

ikastaroak@armeriaeskola.eus

www.armeriaeskola.eus

Isasi 36, EIBAR

943 20 32 44

 **Lanbide**
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

 **EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional



EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNION EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Burua entrenatzeko Burulogy ekimena aurkeztu dabe

Eguaztenian aurkeztu eben Burulogy, teknologixa barri-xeri egokitutako entrena-mendu kognitiborako programaren ikasturte barrixa. Ekitaldixan Miguel alkatiak eta ekimenaren, La Caixaren eta Untzaga eta Beheko Tokia jubilau etxietako ordezkariak hartu eben parte. Burulogy ekimenak laugarrenez ekin detsa kurtsuari eta, esandakuaren arabera, gero eta jende gehixago animatzen da parte hartzera. Ikastarueta funziño kognitibuak lantzen dira, asmo

horrekin diseinatutako ariketak tablet batian egitten jua ahala. Azaldutakuaren arabera, hainbat talde dagoz martxan, 60 urtetik 90 urtera bittarteko parte-hartzailliekin, *"baiña adiñak bardin detsa, bakotxak bere premiñetara egokitutako ariketak egitten dittualako"*. Ikasturtia ointxe hasi eta datorren urteko ekaiñian amaittuko da. Untzagako jubilau etxian talde bi dagoz (astelehen eta eguaztenetan, 16:00etatik 17:00etara; eta martitzen eta eguene-tan, 16:30etik 17:30era) eta



Ekimena bultzatzen daben erakundietako ordezkariak aurkezpenian.

Beheko Tokian talde bakarra (eguenetan, 10:00etatik 11:00-etara). Interesa dakanak jubilau etxian galdetu leike edo, bes-

tela, 943177245 / 679052651 telefono zenbakixetara deittu edota www.burulogy.com webgunera jo.

Gabonetako OTARRA

Gabonetako OTARRA
2.000 €ko
balioa duen Otarra

Prezioa: 1€
Zukako 2019ko abenduaren 11an egingo da
Zbk:

Euskara Elkartea
Industria 17 Aparteko aparteko etxeak
industrial eremuak eta enpresak

Gabonetako Otarrarendako rifak

Gaur hasiko dira ...eta kitto!-kuak Gabonetako Otarrarendako rifak saltzen, euro batian, eta datozen egunetan ohiko tokixetan be (denda, taberna eta hainbat establezimendutan) ipiñiko dira salgai. Aurreko urtietan bezala, *"El Corte Inglesak gurekin bat egin eta babesa emon desku. Aurten be 2.000 euroko otarra eruango dau zozketako zenbaki saritua dakanak:*

1.500 euro produktuetan (edarixak, kontserbak, hestekixak, turroiak...) eta, horrekin batera, 500 euroko erosketa-txartela, diru horrekin nahi dabena erosteko". Zozketia abenduaren 11n egingo da eta irabazliak 15 eguneko epia izango dau sarixa jasotzeko. Antolatzailliak herritar guztiak animau nahi dittu txartelak erostera, *"holan alkartiari laguntza emoteko"*.

Azukretxuak gure ondarearen barri emoteko

Eguazten arratsaldian aurkeztu eben *"Gure azukretxoek ondarea daramate"*, urtero sasoi honetan izaten diran Ondarearen Europako Jardunaldixeri lotutako ekimena Museuan. Aurkezpenian, Urkotronik enpresako Leire Odriozola eta Virginia Imediorekin batera, M^o Jose Telleria Foru Aldundiko Kultura zuzendarixak eta Idoia Sarasketa Ego Ibarra batzordeburuak hartu eben parte eta, esandakuaren

arabera, *"Diputaziñotik egin zeskuen proposamena onartu eta, kafia hartzerakuan tabernetan banatzen dittuen azukretxueta antziñako argazkixak ipintzera animau gara. Gure ondarea ezagutzera emoten laguntzeko, Eibar, Elgoibar, Ermua eta Soraluzeako 40 irudi ezberdiñekin apaindu dittugu azukriak. Oso lan politta izan da eta, gaiñera, Udalak eta bereziki Artxiboko Yolanda Ruizek asko erreztu deskuz gauzak"*.



Gobernatzen hasteko eskatu detsa EAJ-PNVk PSEri

Asteburuan bete dira 100 egun inbestidura saiua egin zala eta, jeltzaliak salatu dabenez, "oindiok ez dago gobernu programarik eta agintzen dabenak ilusiñorik ez dabe erakusten". Egitten daben baloraziñuaren arabera, "aurreko agintaldixetan ikusi dittugun inertziekin segitzen dabela, berritasunik ez daguala ikusten dogu". Jeltzaliak "sozialisten gobernuaren ekimen eza" salatziarekin batera, sozialisten jardueraren ardatzak "informaziño falta, inprobisaziñua eta alkarrizketarako gaitasun eza" dirala pentsatzen dabe. Gauzak holan, Josu Mendicute Udaleko bozeramaile jeltzaliak PSOeri exijidu detsa "behingoz gobernu posiziñuetara gerturatzten hasteko", sozialistak jeltzaliekin udal maillako akordixuak nahi badittue, behintzat.



Bizikleta Egunarekin pozik antolatzailliak

Domeka goizian ospatu zan Bizikleta Eguna, Eibarko Txirrindularien Elkartearen eskutik eta jendiak emondako erantzunarekin pozik daguezela diñue. Jaixa Untzagan hasi zan, goizian goizetik: errepidera urten eta ibilbidiari ekin aurretik, udaletxe parian 27 zikloturista eta biker alkartu eta talde argazkixa egin eben. Horrekin batera, Untzagan umiendako zirkuituak eta bestelako jarduera batzuk preparau zittuen eta horretan 70 bat umek hartu eben parte.

Teknikerrek indarrak batu dittu GH garabien enpresarekin

IK-4 Tekniker zentruak alkarlanian jarduteko hitzarmena siñatu eban martitzenian Beasaingo GR Cranes & Components enpresarekin. Akordixua zentro teknologikuaaren egoitzan siñatu eben Jose Antonio Guerra GHko zuzendari orokorrak eta Alejandro Bengoa IK-4 Teknikerreko zuzendari nagusixak. Hitzarmenaren arabera, Teknikerrek "aktiboki" lagunduko detsa Beasaingokeri I+G+b plan estrategikuaaren gargaenian kolaboratzaillae teknologiko modura.

IK4  TEKNIKER
Research Alliance



"Eskerrik asko zure irrifarrarekin danok poztiarren"

BETI GUREKIN
ZURE FAMILIA

EMILIA URDANGARIN ZURUTUZA

2019ko urriaren 7an hil zen, 80 urterekin



 **Funeraria·Ehortzetxe**
Mugica

EIBAR  Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	ELGOIBAR  Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
---	--

Bulegoa Eibarko erdialdean 

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Eibarren bere saltsan

Zaila izan behar da maleta egin, etxea utzi, 8.000 kilometro baino gehiago egin eta kultura, ohitura eta bizimodu ezberdina duen herrialde batera bizitzera joatea. Yadira Molina, ordea, bikain egokitu zen bizitoki berrira, Eibarrera. *“Herri lasaia da, dena eskura dago, menditsua da... nire jaioterra bezala”*. Hasieratik sentitu da beste eibartar bat gehiago eta horrela izaten jarraitzeko asmoa du.

Caucako Haranean hazten

Kolonbian jaio zen Yadira, Calitik gertu dagoen Yumbo izeneko herrian, San Marcos ‘korregimientoan’. Caucako Haranean dago, guno menditsuan, eta bero egiten du urte osoan. Giro horretan, eskolatik irtetea kalean pasatzen zituen orduak lagunekin. *“Gurasoek lan egiten zuten eta amama eta aitxixak zaintzen ninduten eurak iritsi arte”*, gogoratzen du. Beraz, familia-giro politoan hazi zen bi anai-arrebekin batera.

Narkoen opariak

Umea zenean, 80. hamarkada amaieran eta 90. hamarkada hasieran, giro nahasia bizi zen Kolonbian. Droga kartel handien sasoa zen eta biolentzia jabetu zen herrialdeaz. Ume baten begiekin, ordea, gauzak beste modu batean ikusten ziren. *“Gu ez ginen gertatzen zenaz ohartzen. Gainera, nire inguruko inor ez zegoen mundu horretan sartuta eta lasai bizi ginen”*. Umeen xalotasunak ere laguntzen zuen. *“Gabonetan narkoek opariak banatzen zituzten kalean eta guk poz-pozik hartzen genituen. Agian gurasoei ez zien hainbeste graziarik egiten. Orain, atzera begiratu gero, zegoen arriskuaz ohartzen gara”*.

Dantza egiteko gogoz

Maitasunak ekarri zuen Yadira Eibarrera orain dela 13 urte. *“Ez nekien Eibar zer zen ere, baina lehen momentutik asko gustatu zitzaidan”*. Bera ere harritu zen hain ondo egokitu zelako. *“Kolonbian bizi nintzenean pentsatzen nuen beti han biziko nintzela, gurasoei oso lotuta negoen”*. Familia faltan botatzen du, noski, baina hainbat alditan itzultzeko aukera izan du eta ama hiru hilabetez egon berri da Eibarren. *“Askok gustatzen zaio Euskal Herria”*. Horrez gain, faltan botatzen duen beste gauza bat dantza da. Cali saltsaren hiriburua izanik, hango erritmoak dantzatzeko aukera gehiago edukitzea gustatuko litzaioke. *“Hemen ez duzue saltsa dantzatzen, mugitu egiten zarete”*, dio barrez.

“Le fue más mal que a perro en misa”

Norbaiti gauzak gaizki irteten zaizkionean erabiltzen da. Meza dagoenean txakur bat elizan sartuz gero, ostikoka ateratzen dutelako.



Eibarren bizitokia aurkitu du Yadirak. Ekhi Belar

Eibarko bizi-kalitatea

Kolonbiako gaur egungo egoera “beldurgarria” dela uste du Yadirak. *“Biolentzia, matxismoa... gauzak beste modu batean ikusten dira hemendik”*. Eibarko bizi-kalitatea asko baloratzen du, Kolonbiakoarekin alderatuz. *“Hemen lan egiteko aukera gehiago dago eta horrek bizitza baldintzatzen du: lasaiago eta erosoago bizi zara, dirua edukitzeak aisialdirako aukerak ematen dizkizu... Kolonbian bizirauteko egiten dugu lan”*. Gauzak horrela eta bizitzaren herena Eibarren pasa ondoren, erroak bota ditu eta etorkizuna hemen marraztu nahi du.

Euskera ikasteko erabakia

Erizain-laguntzaile ikasketak egin ditu eta, horrez gain, garbiketa-lanak egiten ditu. *“Zaharrekin lan egin dudanean euskera jakiteak duen garrantziaz konturatu naiz, ez nielako ulertzen, eta euskera ikastea erabaki dut”*. Hainbeste urte Eibarren pasa ondoren badakizki euskerazko berba batzuk, *“baina zeretik hasi behar naiz”*. Gainera, lagunaren artean ere hizkuntza jakiteko behar hori ikusi du. *“Seme-alabak dituztenek euskera jakin behar dute, umeek euskera erabiltzen dutelako”*.

Martitzen goizean aurkeztu zuten Atzegiren aurtengo sentsibilizazio kanpaina Eibarko Txolartean. Aurtengo kanpainak irisgarritasun kognitiboaren gaia tratatzen du eta, azaldu zutenez, 'Bizi nire errealitate intelektuala eta mugak hautsi' goiburuarekin Atzegik "adimen desgaitasunaren betaurrekoak" jartzera animatu nahi du gizartea, "eguneroko bizitza beste ikuspuntu batetik ikusteko eta, horrela, pertsona hauek errealitatea ulertzerako orduan dauzkaten zailtasunak sentitu eta nabaritzeko aukera izateko".



Guztiontzat mundu ulergarriagoa helburu duen **kanpaina abiatu du Atzegik**

Aurkezpen ekitaldian esandakoaren arabera, "eguneroko bizitzan hainbat egoeratan, pertsona askok, eta are gehiago adimen desgaitasuna dutenek, arazoak izan ditzakete mezu batzuk ulertzeko: jatetxeetako kartak, egutegiak, garraio publikoko ordutegiak, ulertzeko zailak diren irudiak, informazio liburuxkak, hauteskundeetako programak eta abar luze bat. Kanpaina honekin, gizartea zailtasun horietaz konturatzea eta mezu sinpleak erabiltzea nahi du Atzegik, ulertzekoa erreza den ingurune bat sortzeko. Horrelakoek pertsonen autonomia eta independentzia handitzen laguntzen dute eta, horrela, euren bizitza kalitatea hobetzen da".

Keinu txikien garrantzia

Gaineratu zutenez, kanpainarekin jen-



dea irisgarritasun kognitiboaren inguruan pentsatzera animatu nahi dute, "bakoitzak, bizi den tokian edo lan egiten duen inguruan informazioa irisgarriagoa izateko keinu txikiak egin ditzan". Gainera, keinu horiek adimen desgaitasuna dutenentzat ez ezik, denentzat mesedegarriak direla

azpimarratu nahi dute: "Nori ez zaio gertatu eraikin publiko batera joan eta galduta ibiltzea? Edo autobusa hartzera joan eta ordutegia ez ulertzea? Gauza guztiak irisgarriagoak izatea denok eskertuko dugu".

Kartelak, bideoa eta internet

Kanpaina ezagutzera emateko, "fami-
lien laguntzarekin 8.000 kartel ipini ditugu Gipuzkoa osoan zehar. Horrez gain, kanpainaren helburuak adibide garbi batzuen bidez azaltzeko eta aholku moduko batzuk emateko liburuxka batzuk diseinatu dira, toki ezberdinetan banatzeko". Eta, urteroko moduan, kanpainaren harira bideoa egin dute, "adimen desgaitasuna daukan pertsona batek eguneroko bizitzan mezu batzuk ulertzeko izan ditzazken arazoak erakusteko". Amaitzeko, Atzegi.eus/realidadintellectual mikrosite-a ipini dute martxan, "kanpainako informazioa modu errazagoan zabaltzeko eta horri buruzko albisteak ezagutzera emateko".



Euskarazko ikasmaterialen dokumentazio-zentroa da EIMA Katalogoa. 2005etik dihardu euskarazko ikasmaterialak biltzen, katalogatzen eta herritar guztientzat sarean kontsultagarri jartzen. Eibarren du egoitza (Hezkuntza Esparruko Jaizkibel eraikinean) eta mailegu-zerbitzu berria ireki du hezkuntza-komunitate guztiarentzat. Horrekin batera, webgunea berritu du. EIMA Katalogoko lantaldean bi eibartar eta zarauztar bat daude, eta eurekin jardun dugu dokumentazio-zentroaren funtzionamenduz eta bertan aurki dezakegunaz.



Roberto Kerexeta, Ainara Buenetxea eta Fernando Berrizbeitia.

EIMA Katalogoa, ikasmateriala hezkuntza-komunitatearen esku Eibarren du egoitza euskarazko ikasmaterialen dokumentazio-zentroak

Unibertsitate aurreko mailetarako (HH, LH, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa) euskarazko ikasmaterialen dokumentazio-zentroa da Hezkuntza Sailaren EIMA Katalogoa, hezkuntza-komunitatearentzat pentsaturiko baliabide erabilgarria, baina katalogatutako hainbat material edozein herritarren eskura ere ipintzen duena. Izan ere, datuak ez dira nolanhikoak. Gaur egun, 26.000 erreferentzia ditu katalogoak, eta horietatik 4.200 inguru sarean kontsultatu edo deskargatu daitezke.

EIMA Katalogoaren dokumentazio-zentroak Eibarren du egoitza (Eibarko Hezkuntza Esparruan, Otalora hiribidea, 29 - Jaizkibel eraikina). Beraz, beste inon ez dagoen zentroa da. Ainara Buenetxea zarauztarrak eta Fernando Berrizbeitia eta Roberto Kerexeta eibartarrek osatzen dute bertako lantaldea. Azaldu digutenez, "Gure instalazioetan materialak kontsultatu eta maileguan hartzeaz gain, bertako kontsulta-gela erabili daiteke materiala aztertzeke, ikerketa-lanetarako... Interneteko sarbidea duten hainbat ordenagailu daude erabiltzaileen eskura eta wifi konexioa ere badago. Horretaz guztiaz gain,

ikus-entzunezko gela ere badago, U-matic, VHS, Beta eta DVD euskarrietan dauden baliabideak bisualizatzeko gela".

Herritarren eskura "baina bereziki hezkuntza-komunitateari irekitako baliabidea" dela azaldu digute: ikastetxeei, irakasleei, ikasleei, eta baita gurasoei ere. Hala ere, euskarri digitalean dagoen hainbat material didaktiko, baldin eta erabilera askekoak badira, online plataformaren bidez es-



kura ditzake edozein herritarrek, bertan bilaketa egin ondoren.

Askotariko baliabideak dira EIMA Katalogoan jasotzen direnak:

- Eskolan erabiltzeko sortutako materiala: testu-liburuak, ariketa-koadernoak, aplikazio informatikoak...
- Sareko hainbat baliabide didaktiko: webguneak, simulazioak, jolasak...
- Haur eta gazte literatura, adin-tarteka eta gaika sailkatuta.
- Helduentzako literatura.
- Material monografiko eta erreferentziakoak..
- Ikus-entzunezkoak.
- Jolas didaktikoak.
- IRALEn sortutako materiala...

EIMA Katalogoa dokumentazio-zentro bat dela azpimarratu nahi dute bertako arduradunek: "ez da bakarrik materialak erakusteko edo maileguak gestionatzeko leku bat. Gure lanaren alde garrantzitsu bat dokumentatzea da: ahalik eta material gehien topatzea, biltzea, katalogatzea eta, ahal den neurrian, sarearen bidez eskuragarri jartzea. Saiakera bat egiten ari gara era askotako euskarazko ikasmaterialak,

zaharrak zein berriak, biltzen, katalogatzen eta jendearen eskura jartzen”.

Webgune berriztua: eimakatalogoa.eus

Katalogatuta dauden 26.000 dokumentuen artean kontsultak ikasmaien, jakintza-gaien, ikasmaterial moten, argialetxeen, edo egileen arabera egin daitezke. “EIMA Katalogoaren webgune berrituan errazago egingo zaio erabiltzaileari katalogoko materialak bilatzea eta eskatzea, intuitiboa eta erabileraz baita plataforma berritua”, dio Eibarko lantaldeak. Herritar guztiak erabili dezakete eta interneten eskuragarri dauden materialak badira, *online* eskuratu daitezke. Materiala euskarri fisikoan badago, *eimakatalogoa.eus* webgunetik eskatu daiteke. Ikastetxeentzat zerbitzu berezia dago: erabiltzailea Eibartik kanpoko irakaslea bada,

materiala ikastetxean jaso dezake posta bidezko doako mailegu-zerbitzuaz baliatuz. Horretarako, erabiltzaile-kontua sortu behar da aurretik. “*Eta erabiltzaileak nahi duen material hori aurkitzen ez badu, EIMA Katalogoarekin harremanetan jar daiteke, eta lortzen ahaleginduko gara*”, argitu digute.

Eibarko egoitza 8:30etik 17:30era egoten da zabalik astelehenetik ostegunera, eta 8:30etik 14:30era ostiraletan. Harremanetan jartzeko *eimakatalogoa@gmail.com* helbidera idatzi edo 943 20 27 48 telefono zenbakira deitu daiteke.

Gure lana ahalik eta material gehien topatzea, biltzea, katalogatzea eta, ahal den neurrian, sarearen bidez eskuragarri jartzea da.

EIMA: euskarazko ikasmaterialgintza

EIMA izena akronimo bat da eta “euskarazko ikasmaterialgintza” esan nahi du. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskarazko Zerbitzuak 1982. urtetik hona abian duen lan-programa da. Helburu nagusia unibertsitate aurreko ikasmaitetarako euskaraz behar adina ikasmaterial sortzea da, ikasmaterial horien kalitatea zaintzea eta ikasmaterial horiek zabalik izan dezaten administrazioetik laguntzea.

Zerbitzu honen baitan, EIMA Katalogoa da funtsezko adarretako bat. Ikasmaterialen zabalik izateko 2005ean sortua, urte hartatik dihardu EIMA Katalogoak dokumentazio-zentroan euskarazko ikasmateriala biltzen, katalogatzen eta sarean kontsultagarri jartzen.



SOLDADURA IKASTAROA (EIBARKO UDALAK SUSTATUTA)

- TITULAZIO OFIZIALA (915h)
- EIBARREN ERROLDATUTAKO PERTSONEI ZUZENDUTA
- DIRULAGUNTZA ASISTENTZIAGATIK
- LAN PRAKTIKAK ENPRESETAN **ii LAN AUKERA !!**

INFORMAZIO GEHIAGO:

MEKA LANBIDE ESKOLA . ELGOIBAR 943 74 80 19



1934ko oktubria Eibarren

Oin dala 85 urteko urriaren 5a ez zan egun normala izan gurian, baiña iraultza izena merezi dabenik be ez zan izan, *"iñolako aldaketa politikorik ez zalako gertatu"*. Gehixago izan zan, Jesus Gutierrez historiadoriak esaten dabenez, *"insurrekziñua"*. Mobimientua izan zan herrixan, baitta tiroketak be; aurretik iragarritta zeguan greba orokorrarekin bat egin zeбенak. Baiña egun bereko eguerdirako *"iraultzailliak bandera zurixarekin"* amore emon zeбен *"autoridadiaren aurrian"* eta armak entregatzeko prest agertu ziran. Insurrekziñuak zazpi hildako laga zittuan gurian eta hainbat herritarren atxiloketa. Sententziak geruago hiru kondenatuko zittuan hiltzera eta beste 64 lagun sei urtetik 25 urtera arteko kondena betetzera.

Procésaren sententziaren bezperatan gagozen honetan, gure herrixa oin baiño askoz be aztoratuago izan zan oin dala 85 urte, 1934ko urrian. Sasoi hartan CEDAko hiru ministro Espaiñiako gobernuan sartziak horren kontrako hainbat mobimientu eragin zittuan estatuan, batez be Asturiasen eta Kataluñian. Guztira 1.500 hildako eta 30.000tik gora atxilotutako izan zittuan protesta moduan antolatutako ekitaldi-sortak, batez be aittatutako herraldixetan. Euskal Herrixan Eibarren eta Arrasaten bizi izan ziran ekitaldi larrixenak. *"Jaleua"* sozialistak piztu zeбен batez be, EAJkuak eta republikano moderauak ez ziralako *"altxatu"* egun horretan.

1934ko urriaren 5ian zazpi hildako izan ziran herrixan, zaurittutako lagun mordua eta 300dik gora atxilotu, Frantziara eta Errusiara ihes egin zeбенekin batera. Udaletxian tortura gogorrek jasan izan zittuen bertatik pasatu ziran askok eta istilluetan parte hartu zeбенetako gehienguak. Parte-hartzaillietako askok hamasei hillabete



Indar armatuen desfilea Untzagan 1934ko urriaren 21ian. EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

egingo zeбен geruago Iruñako kartzelan Gerra Konsejua egin zan arte. Han 172 lagun epaitu zittuezen, danak eibartarrak hiru bergarar kenduta, eta han hiltzera kondenatu zittuen hiru eibartar. Ehun eta bost lagun libre eta beste hirurogeitalauk 25 urte eta lau hillabete tarteko zigorra jaso zeбен. Aurrerago, 1936ko otsaillaren hauteskundietako emaitzeri jarraituta, hortik urtendako gobernuak aministiatu egin zittuan danak. Libre laga eta bost hillabete-ra hasiko zan gerra zibilla.

Istilluak herrixan goizetik

Urriaren 5ian goizeko lau terdixetan hasi ziran lehelengo istilluak Estaziño aldian, *"reboltozuak"* (holan deitzen detse Tomas Zubizarretak 'La Voz de Guipuzca' periodikuan) guardia zibilleko pareja bateri eraso egin zetsenian Star fabrikaren aurrian. Goizeko seiretan Banco de Pruebas-en sartu eta 200 arma motz eta 114 luze hartu zeбен reboluzionarixuak, 40.000 kartutxo eta 12 kilo polborarekin batera. Jarraixan Compañia Española de Armas y Municionesera juan ziran, bertan 4.000 arma eta milioitik gora kartutxo eguazen-eta. Hango tiroteuan hil zan 20 urteko laguna.

Goizeko sei terdixetan, bestalde, Carlos Larrañaga fabrikantia mezetara juan zan, baiña mezarik ez zeguanez, buelta emon zeбен etxera itzultzeko asmuarekin tirua jaso zeбанian. Egun horretako arratsaldeko seiretan hilgo zan Arrillagaren klinikan. Zazpiretatik aurrera borrokia zabaldu egin zan herriko hainbat puntura, Bolingua mendiraño.

Bilbotik eta Donostiatik asaltoko indarrak heltzen hasi ziran Eibarrera, baiña Calbeton kalian eta Armerixa Eskolan jarrittako barrikadak ez zetsen laga herrixan lasai sartzen. Ezin izan zeбен San Andres parrokiatik eta Armerixatik pasatu. *"Reboltozuak"* herrixaren jabe egin ziran une hartan eta udaletxian jarri zeбен kuartel generala. Armerixa inguruan gertatu ziran tiroketa larrixenak Bilbotik etorrittako asaltoko indarren kontra, bi ordutik gora iraun zeбен, eta teillatuan zeguan gaztia eta guardia bat hil ziran, Landaburu tenientia zauritziat gain. Trenez be ahalegindu ziran asaltoko guardiak Errepublikako Plazara heltzen, baiña Estaziñoa bueltatu bihar izan ziran bidian tiroteo latza jaso eta gero. Bidebarrietan, Calbetonen eta Isasin tiroteuak asko zabaldu ziran.



Mikeletiak Alfa eta Danok-Bat kooperatibetako sarreretan. GUERRA CÍCIL EN EUSKAL HERRIA.

Guztia hasi eta sei ordu geruago, altxatu ziranak Guardia Zibillaren kuartelera jua ziran bandera zurixa erakutsitta, udaltzain batekin lagunduta. Toribio Etxebarria sozialistak eta Timoteo Etxeberria komunistak hartu zeben ardura hori, *“azken horrek bere burua errepublikanotzat jo bazeban be, zigor txikixagua jasotzeko”*.

Errepublikako Plazan sartu ziran ondoren Guardia Zibilla, Bilboko asalto indarrak eta Gasteiztik be heldu ziran 8 zenbakiko Mendiko Batalloiko soldaduak eta, jarraixan, udaletxia eta Armerixa Eskola hartu zeben. Ehundik gora atxilotutako izan ziran, tartian lau emakumezko. Eta bandua be kaleratu zan egun hartako arratsalde bueltan, herrittarrerri aginduz seiretarako danak etxian egon bihar zirala. Hurrengo egunian, hillaren 6xan, gerra egoeria aldarrikatuko zan eta eibartarrerri arratsaldeko bost terdirako etxeratze agindua emon jakuen. Hurrengo egunerako atxilotu kopurua 186 lagunera iritsi zan, eta euretako 115 Iruñara eruan zittuen. Beste batzuk mendira jua ziran ihesian, Kalamua alde-ra, eta gitxi batzuk kanpora jua eta bueltatu be ez ziran egingo. Exiliatu ziranak Toulouse, Tours, Pau edo Bordelera jo zeben eta izan zan Errusiara jua zana be, Pautik irtenda.

Hurrengo egunetan jendia jua bihar izaten zan etxera klarin-jotziarekin batera. Grebarekin amaitzeko eta bihargiñak euren lantegixetara bueltatzeko agindua be zabaldu zan, baiña iñork gitxi jarraitu eban agindu hori. Hori ikusitta, Mauricio Fister Eibarko agintari militarrek bandua kaleratu eban zapatu goizian danak euren biharretara juateko eta patroieri eskatzen bueltatzen ez ziranen izenak berari pasatzeko. Banco de Pruebasen, esaterako, bihargin guztiak kaleratu zittuen eta beste barri batzuk hartu. Krisi ekonomikua zala-eta, Eibarren astian lau egunetan egitten zan biharra sasoi hartan (astelehenetan jai zan). Greba laga zeban azken herrixa izan zan Eibar. Alfa enpresa azaruaren 5ian zabalduko zan barrero. Eta Iruñako asaltoko indarrak hona bueltatu ziran, negua Eibarren pasatzeko asmuarekin.

Hiru heriotz-zigor azkenian

Nahiko halamoduz egin zan Eibarko *“iraultza”*, txarto antolatuta edo antolatu gabeko ekitaldixekin. Batzuk ez zeguazen ados egitten zihardutenekin, tartian Toribio Etxebarria bera. Asturiasen gertatzen ari zenaren larritasunen barri be ez zeken eibartarrak eta Companysen deklaraziñua Kataluñian hurrengo egunian gertatuko



Luis Marcanok egindako dibujuan Eibarko preso batzuk agertzen dira Iruñako kartzelako ziegan.

zan. Periodikorik be ez zan kaleratuko hillaren 12ra arte, altxamendua gertatu eta astebetara. Urriaren 7xan lege martziala proklamatu zan Espaiña guztirako.

Urriaren 15ian Udal barrixa osatu zan, ziñegotzi errepublikanuekin eta Domingo Kortazar alkate izendatuta. Egun berian istilluetan inplikaturako 74 lagun, lau autobusetan, eruango zittuen Iruñara. Hillaren 21ian gobernadore militarra etorri zan Eibarrera, Ejerzitoko beste agintari batzuekin, indarren desfilia ikusteko.

Udaberrixa heldu zanian, 1935eko maiatzaren 28xan zehazki, ehun eibartar baiño gehixago askatu zittuen eta hona bueltatzeko aukera izan zeben.

Halanda be, epaketian fiskalak lau he-

riotz-zigor, 28 lagunentzat 30 urte, 21entzat 25 urte, bostentzat 21 urte, 19rentzat 20 urte, hamarrentzat 16 urte, 44rentzat 12 urte, seirentzat 8 urte eta beste hamahirurentzat bi urte eskatu zittuan. Azkenian hiru heriotz-zigorretan geratu zan (Juan Ibarra, Francisco Intxaurrea eta Julian Prieto), hemeretzi lagunentzat 25 urte, hamahirurentzat hogei, laurentzat hamasei, 26rentzat hamabi urte eta birentzat beste sei urte: horrela geratu zan azken epaia. 105 preso kaleratu zittuen Iruñatik eta barruan 65 lagun geratu ziran.

Asturiasen emon ziran gertaera larrixenak urri hartan: 30.000 lagun inplikatu ziran istilluetan eta Ejerzituak 18.000 soldadu bialdu zittuan bertara. Millatik gora hildako izan ziran eta beste hirurehun bat guardia zibil eta ejerzitokuen artian. Atxilotutakuak be 30.000 lagun bueltan. Euskadin ez zan heriotz-zigorrik ejekutatu azkenian, baiña 1.500 lagunetik gora izan zen kartzelan amnistia iritsi arte.

Eibarko kasuan, Toribio Etxebarriak, Alejandro Telleria orduko alkatiak eta Juan de los Toyosek hartu zeben altxamenduren ardura nagusiña. Urriaren 5eko hildakuak zazpi izan ziran: Pedro Gerrikabeitia, Sebastian Landa, Florencio Vazquez eta Modesto Lizarralde istilluetan parte hartu zebenak, Matias Viteri (handik pasatzen zan, beste barik eta Guardia Zibillak hil zeben), Gregorio Saez asaltoko guardia eta Karlos Larrañaga karlisten buruetako bat Eibarren.

Oin **Ego-Ibarrek** eskuragarri ipiñi dau atxilotutako 238 eibartarren zerrendia honako helbidian: eibar.eus/eu/udala/sailak/artxiboa/eibar-historian-zehar. Informaziño gehixagorako **Jesus Gutierrezen** *“La insurrección de Octubre del 34 y la II República en Eibar”* kontsultatu leike.



1934ko urriaren 14an aurkittutako materixala Urkiko hillerrixaren nitxo eta tunbetan. ENCICLOPEDIA AUÑAMENDI.

Eneko Lambea (gimnasta):**“Hiru urterekin itzulipurdiak egiten nituen, gimnasia barrenean neraman”**

Ipurua kiroldegian hiru ordu inguruko entrenamendua hasi aurretik hartu digu Eneko Lambeak. Astean birritan Leioatik Eibarrera etortzen da gimnasia erritmikoko entrenamenduak egiteko, kirol honekiko duen maitasunaren adibide. Espainiako txapel-duna hiru aldiz, gimnasia erritmikoan mutilei bidea zabaltzen die bere ereduarekin.

- Nola hasi zinen gimnasia erritmikoan?

Leioako Sakoneta taldean hasi nintzen. Nire arrebak gimnasia erritmikoa egiten zuen eta bere bila joaten nintzen egunero. Gauzak probatzen hasi nintzen, gustoko nuela ikusi eta entrenatzeari ekin nion.

- Berezko trebetasuna zenuen?

Amak beti esan dit psikomotrizitate ona izan dudala txikitatik eta horrek asko laguntzen du. Hiru urterekin itzulipurdiak eta horrelako gauzak egiten nituen. Barrenean neraman.

- Mutila izanik, arazorik izan zenuen talderik aurkitzeko?

Ez. Hasieran ni baino zaharragoa den mutil bat eta ni neu geunden taldean, eta nik neskekin egiten nuen gimnasia, arazo barik.

- Eta lehiatzeko orduan?

Bakarkakoan Euskadin nesken aurka lehiatzeko aukera dut; eta Espainia mailan, nahiz eta nesken aurka ezin naizen lehiatu, gimnasia egiten duen mutil gehiago dago eta euren aurka aritzen naiz. Taldekakoan, bestetik, Euskadin neskekin batera hartu dezaket parte, baina Espainia mailan ez, ez digutelako uzten.

- Gimnasta bakoitzak bere estilo propioa du?

Bai. Normalean, neskak eleganteagoak dira eta mutilak indartsuagoak, baina bakoitza mundu bat da. Marjina baten barruan mugitzen gara eta horren barruan nahi duguna egin dezakegu.

- Nola amaitu duzu Ipurua taldean?

Junior mailako Eibarko gimnastekin bat egin nuen campus batean eta lagunak egin ginen. Lur Aranburuk min hartu zuenean, gimnasta bila hasi ziren eta eskaintza egin zidaten. Niretzat esperientzia berria da, Sakonetarekin ezingo nuelako taldeka lehiatu.

- Leioakoa izanik, nola moldatzen zara Eibarrera entrenatzera etortzeko?

Eguaztenetan eta barixakuetan entrenatzera etortzen naiz, barixakuetan taldekide baten etxean egiten dut lo eta zapatuan berriaz entrenatzen dugu. Leioa ez dago Eibartik urrun eta ikasturte hasieran gaudenez ez zait hainbeste kostatzen.

- Nolakoak dira entrenamenduak?


Klubun artean ezberdintasunak badaude, pentsa zein ezberdina den banaka edo taldeka entrenatzea. Taldean bost pertsonak egin behar dute ondo, ez zuk bakarrik.

- Gero eta mutil gehiagok egiten dute gimnasia erritmikoa. Igarri duzu txapelketetan?

Mutil kopuru handiagoa bakarrik ez, kalitate handiagoa dagoela ere igartzen da. Gaztetxoetan ikusten da kalitate handiagoa dagoela batez ere. Ni bederatzit urterekin ez nintzen gaur egun bederatzit urte dituztenak bezain ona. Kantitate eta kalitate altua lortzen badugu, urrun iritsi gaitezke.

- Eta zuri noraino heltzea gustatuko litzazuke?

Nire ametsa Joko Olinpikoetan parte hartzea da, baina gizonezkoek ezin dugu parte hartu momentuz. Hala ere, gimnasia erritmikoa egiten duen gizonezko batek Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukera duenean gizonezko gimnasta guztiak poztuko gara. Guztion garaipena izango da.

IÑAKI AGUINAGA BASCARAN**(III. URTEURRENA: 2016-X-12)****“ZURE irribarrea eta samurtasuna betiko izango dira GURE ARTEAN”****¶na Maria, Javier Viezniz eta Gartxot**

Botaba

euskal esamoldeen erronkaren 3. edizioa abian

Hirugarrenez antolatu du Labayru Fundazioak Botaba euskal esamoldeen erronka. Aurreratu dutenez, gazteentzako lehiaketa berritasunekin eta egundoko sariekin dator oraingoan. Hori bai, sorreratik antolatzaileek izan duten asmoari eutsiko zaio edizio honetan ere: *“Euskararen erabilera sustatzea eta gazteek egunerokotasunean hizkuntza modu naturalean erabiltzea da helburua”*.

Aurrekoetan bezala, Instagram izango da lehiaketaren euskarria, baina aldaketak dakartza azken edizio honek. Oraingoan ere, lehiaketak hiru aste iraungo du, azaroaren 4tik 25era, hain zuzen ere. Baina aurreko edizioetan ez bezala, aurten *“beroketa-fasea”* egongo da urrian, parte-hartzaileek, jolasean ondo pasatzeaz gain, lehiaketan nola parte hartu behar den ikas dezaten:



Edizio honetako beste berrikuntzetako bat sariei dagokiena da. Aurten bi kategoria egongo dira eta bakoitzean sari bat emango da: Sari Nagusia eskuratzen duenak lau lagunentzako Interraileko txartelak, hilabete osoz Europar zehar nahi adina bidaiatzeko jasoko ditu. Eta Esamolde Originalenaren Sariaren irabazleak lau lagunentzako abentura-espe-

rren edizio honetan ere horrela izango da. *Besteak beste, Iban Garcia youtuberra eta Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia aktoreak arituko dira zeregin horretan, bai lehiaketa hasi aurretik, bai lehiaketak iraun bitartean ere. Horrela, zuzenekoak, desfioak, jolasak, argitalpenak etab. partekatuko dituzte erabiltzaileekin egitasmoa bukatu arte”*.



“Tarte horretan, erronkak, asmakizunak, lehiaketako enbaxadoreen zuzenekoak eta abar izango ditugu. Horrez gain, zozketak ere egingo dira fase horretan: Bilbao BBK Live eta Donostia Festibalerako sarrerak Last Tourrek emanda, Mr. Euskaldun produktu pertsonalizatuak...”

rientzia bat eskuratuko du, Leaktibairen eskutik.

Luxuzko enbaxadoreak

Antolatzaileen berbetan, *“lehenbiziko ediziotik luxuzko enbaxadoreak izan ditu Botaba esamoldeen erronkak, eta hiruga-*

Euskal esamoldeen erronka @botabae-rronka Instagram kontuan jarraitu ahal izango da eta, horrez gain, beste sare sozialetan ere (Youtuben eta Twitterren) jarraipena egingo zaio. Parte hartzeko jakin beharreko guztia lehiaketaren webgunean (www.botaba.eus) kontsultatu daiteke.

M^a CARMEN ARRATE GANDIAGA^{ren}

1. urteurrena (2018-X-13)



“Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. GUREKIN zaitugu BETI”

ETXEKOAK



*imanol magro*

Zaintza publikotasunak egiten du handi, errentagarritasuna alboratzen dutenean. Kudeaketa publiko-pribatuaren onuren mitoaren aurka publikotasuna altxorra da

Zaindu zaintzailea

Mendaroko ospitaleko bideo bat da, uda honetakoa. Hodi bat hautsita larrialdien eremuan, arreta gunetik X izpien makinara doan korridorean, eta dena urez beteta ageri da. 40 minutuz egon da ur beroa bota eta bota, mantentze-langilea iritsi den arte. Gertu bizita ere, esnatu, jantzi, autoa eta erremintak hartu eta giltza ixterako erraz pasatzen denbora tarte hori. Ospitalean ez baitago gaueko txandarik, eta langile hori 11 euroren truke izan dute mugikorrera itsatsita, urduri. Besteak beste, horrelakoekin amaitu eta beraien lan-baldintzan hobetzeko daude greban, okerrera egin baitute zerbitzua bere egin duen enpresa pribatu berriarekin. 100 egun daramatzate, gu zaintzeko ari dira protestan.

Zaintzaileak dira ere Gipuzkoako zahar etxeetako langileak. Haiek ere greba luzean, haiek ere prekario. Ia denak emakumeak, zerbitzu publikoa pribatizatzearen tranparen sarean itsatsita. Be-tebehar publikoa enpresa pribatu baten esku utzi, eta lan-gatazka dagoenean eskuak garbitzen dituen erakundea, auzian zer ikusirik ez balu bezala. %90eko zerbitzu minimoak ezarri, grebari indarra kendu eta aurrera. Eibar handia bada, ez dezagun ahaztu, langile ekimenari eta grebei esker da handia. Eta zerbitzu publikoei esker. Zaintza publikotasunak egiten du handi, errentagarritasuna alboratzen dutenean. Kudeaketa publiko-pribatuaren onuren mitoaren aurka publikotasuna zaindu beharreko altxorra da. Zaintzailea zaintzea guztion ardura da.

*olatz etxeberrria*

Aseguruen partzuergoak aseguru ordainduta duten bizilagunei itzultzen die kalteen ordaina eta ez polizari gabe dauden jabeei, zuzena izan edo ez



Etxean seguru, ziur???

Denok dakigu etxean bezala ez dela inon egoten, baina seguru ahal gaude etxean? Eroso egon gaitzeko, baina ziur seguru gaudela? Ba... denok ez gara seguru egongo, eta orain azalduko dizuet.

Eraikin guztiek euren segurua eduki behar dute, hau da, jabeek eta erabiltzaileek diru kopuru bat ordaindu behar diete aseguru-konpainiei euren jabetzak ziurrak izan daitezen eta bai barruan, bai kanpoan edota eraikinen inguruan ziur egon gaitzen. Baliteke zuk zure etxebizitza aseguratu edukitzea, baina zure aldame-nekoak ez. Eta orduan? Zer gertatzen da? Zuk zure etxean ezbeharrak edukiz gero, ez dago arazorik, baina eraikinak orokorrean kalteren bat jasaten badu? Zer gertatzen da zuk aseguru baldin baduzu, baina beste bizilagunek ez? Eta eraikin osoko poliza ez baduzue?

Aseguru ordaintzen duenak eta arriskua aurreikusi duenak jasoko du bere diru-laguntza. Horrela ba, eraikin berdineko bi etxebizitzaren arteko ezberdintasun nabaria aseguru edukitzean legoke.

Kasu baterako, uholde izugarriak gertatzerakoan nork jasotzake dirusariak? Ba, aseguruen partzuergoak aseguru ordainduta zuten bizilagunei itzultzen die kalteen ordaina eta ez poliza-

rik gabe dauden jabeei. Zuzena izan edo ez izan, horrela funtzionatzen dute, eta ezbeharrak datozenean denak elkarrekin datoz. Argi dago askotan aseguru ez duen norbaitek ez duela izaten ezin duelako ordaindu, dirua ailegatzen ez zaiolako. Bada, ezbeharraren aurrean horrela gertatzen bazaio, aurretikan asegururik ordaintzen ez zuenez, ez du partzuergotik ezer jasoko, eta aseguru zuten bizilagunak bai ordea. Hau bai paradoxa!



Sagardo Eguna 2019



Aitor Gorosabelek saria jaso zuen euskeraren alde egindako lanagatik.



Zapatuan giro ezinhobean ospatu genuen XXVI. Sagardo Eguna Untzaga plazan. Goiz eta arratsaldez inoiz baino jende gehiago ibili zen 13 sagardogilek ekarritako sagardoa dastatzen eta pintxoak jaten.

Gure eskerrik beroenak lanean gogor jardun zuen talde zoragarriari, Guridi tabernari, Ondo Nai, Peña Txinbera eta Botellin Elkarte gastronomikoei, Jose Luis Fernandez "El Cantón de la Avenida"ri; Oiartzungo Beko Etxeko lagunei, Koroatei baserriko Pilar eta Manueli eta, nola ez, egun osoan giroa alaitzen jardun zuten Marisol Arrillaga eta bere soinu-joleei.



26. SAGARDO EGUNA. ESKERRIK ASK



SKO, EIBAR!!!



26. SAGARDO EGUNA argazki gehiago: etakitto.eus/mediateka



II. Sagar-tarta lehiaketako lehen saria Neama Fawzyk eskuratu zuen. Bigarrena Ihssanerentzat izan zen eta hirugarrena Arantzak eraman zuen.



#sagardoetakitto Instagram Lehiaketa

Aurtengo saria Sandra Fernandezentzat



Sandra Fernandez izan da aurtengo Sagardo Egunaren inguruan antolatu dugun argazki-lehiaketako irabazlea. Eguaztenean etorri zen ...eta kitto! Euskara Elkartera sari bila. Argazkian ikusten duzun moduan, pozarren eraman ditu lehiaketako irabazlearentzat gorde genituen 12 sagardo-botilak. **Zorionak!** Lehiaketako argazki guztiak: www.etakitto.eus



#sagardoetakitto Instagram Lehiaketako argazki irabazlea.

Asier Cuevas herri-krosa bihar 18:00etan

Asier Cuevas herri-lasterketaren zazpigarren edizioa jokatu da bihar arratsaldean, 18:00etan hasita. Betiko moduan, herriko kaleak hartuko ditu batez ere eibartarren artean zabalduetako probak, Toribio Etxebarrian hasi eta amaitzeko. Lasterketa betiko distantzian egingo da, hau da, zazpi kilometro eta erdi osatu beharko dute parte-hartzaileek. Klub Deportiboko atletis-

mo batzordeko antolatzaileek hasierako asmoarekin jarraitzen dute: *“Antxitxiketan egitea jaiia bihurtu nahiko genuke eta lortzen dihardugu, bakoitzak bere erritmoari jarraitu eta taldeetan ondo pasatzeko aukera eskainita”*. Atzora arte 180 lagun inguruk eman zuten izena. Eguerdian, 13:00ak aldera, Eibarko foball egokituaren taldeak erakustaldia egingo du Deporren parean.



Ipuruako senior mailako taldea Euskadiko txapeldun

Alaitz Aranbarri, Jennifer Hernandez, Nahia Arguiz, Arrate Baroja eta Maddi Teranek osatutako boskoteak Euskadiko txapela jantzi zuen aurreko zapatuan Leioan jokatuako lehiaketan. Emaizta horrekin eibartarrek txartela eskuratu dute azaroaren 10ean Iruñan jokatu den Espainiako Koparako eta, aldi berean, Euskalgym Galan parte hartzeko hautatu dituzte. Bronzetzeko domina irabazi zuen junior mailako taldeak ere hartuko du parte azaroaren 16an Barakaldoko BEC-eko Galan; Espainiako Kopan ezin izango du parte hartu Federazioak ez duelako talde mistorik onartzen. June Heredero, Sara Aranguren, Enara Bilbao eta Indira del Pinok Eneko Lambearekin osatu zuten boskotea (kirofanotik pasatu den Lur Aranbururen tokia

betetzen du leioatarrak). Jubenil oinarri mailako boskoteak zilarra irabazi zuen ai-



Oinarri mailako jubenilak eta infantilak.

patutako Euskadiko txapelketa horretan eta infantil oinarri mailakoa laugarren geratu zen: talde biek azaroaren 8an eta 9an Iruñan jokatu den Espainiako txapelketa dihardute prestatzen. Banaka lehiatu zuten Naroa Alonsok (brontzea infantil mailan) eta Arrate Baskaranek ere (bosgarren kadeteen) txartela lortu zuten azaroaren 6rako.

Ipuruako gimnastek hitzordu berezia izango dute hilaren 19an Ipuruako kiroldegian, goizeko 10:00etan abiatuko den San Andres torneoaren XXI. edizioan. Goizean oinarri mailako 50 banakakoen eta 40 talderen ariketak ikusteko aukera izango da eta arratsaldean absolutu mailako 30 taldek eman dute izena, tartean estatu osotik etorritako talde indartsuenak.

Urbat waterpolo taldeko infantilak nagusi Gasteizen

Sestaori 5-9, Logroñori 1-11, Donostiari 2-11 eta, finalean, Gasteizko Lautadari 4-6 irabazi ondoren, Urbat waterpoloko infantil mailako taldeak Gasteiz Hiria bereganatu zuen aurreko asteburuan. Hori gutxi balitz, Paul Alberdi eibartarra torneoko jokalari onena izendatu zuten.



JESUS GARAGARZA GURRUTXAGA

2019ko irailaren 30ean hil zen, 73 urterekin



Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.

ETXEKOAK



Eibar FTko ordezkariak indartsu maila guztietan

Gizonezkoen lehen taldea berpiztu egin da azken jardunaldietan eta, etxeko partidubiak irabazita eta kanpoko beste biak berdinduta, hau da, batazbesteko ingelesarekin, saillkapeneko erdialdeko postuetan kokatu da. Reto Iberdrola maila berrian jokatzen duen **emakumezkoen lehen taldeak**, bestalde, atseden hartu zuen azken asteburuan aurreko jardunaldian Alavesekin Gasteizen bana berdindu eta gero. 3. mailan jokatzen duen **Vitoria** filialak ere badihardu maila berriari neurria

hartzen eta, azken jardunaldian Sestaorekin husna berdindu ondoren, zortzigarren kokatu da, baina liderrarengandik hiru puntura bakarrik. Erregional Ohorezko mailako **Eibar Urkok** ere azkar hartu dio neurria mailari eta buelta eman dio dagoeneko erdipurdiko hasierari, goialdean dagoen multzoan sartzeraino. Harrobiko taldeengana jauzi eginez, lehen taldeen kasuan behintzat bakoitza bere multzoko goi postuetan aurki dezakegu: **jubenil Ohorezko mailako** Eibarrek Athletic gainditu zuen azken jardun-



Eibar Urko hasi da mailari neurria hartzen.

naldian eta, Leioa eta Osasunarekin batera, laukotea osatzen dute goi-goian; **jubenil Euskal Ligako** bigarren taldea lider bakarra da, orain arte jo-

katutako lau partidua irabazita; **kadete Euskal Ligako** ordezkariak erraz gainditu zuen Antiguoko azken jardunaldian eta seigarren postuan dago.

Jardunaldi onuragarria Eibar Eskubaloiko talde gehienentzat

Emaitza bikainak eskuratu zituzten gure herriko ordezkari gehienek azken jardunaldian. 1. Nazional mailako lehen taldeak, berriz, erraz gal-

du zuen Ipuruan Zaragozako Maristasekin. Azkonizagaren baja asko igarri zuen Fernando Fernandez taldeak, partidu hasieratik atzetik joan

zen-eta markagailuan. Defentsan kaskar jardun zuten eibartarrek, erasoan ahul bezainbeste; hortik 20-33 emaitza ezin adierazgarriagoa. Senior mailako beste bi taldeek, bestalde, garaipen errazak lortu zituzten: emakumezkoen Grupo Mecalbek 25-14 menderatu zuen Urola Fincas Urretxu eta gizonezkoen Haritzak 28-34 irabazi zion Pasaian Donibaneri. Jubeniletan, nesken Grupo Mecalbekoek 17-21 irabazi zioten gol gutxiko neurketan Ordizia Irurenari, mutilen taldeak atseden hartu zuen bitartean. Kadeteetako

lehen bi taldeak nagusi izan ziren: neskak Andoainen Leizaran La Salle Berrozperi 18-23 irabaziz eta mutilak Hernani Akola 46-22 jipoituta. Nesken bigarren taldeak, Muelles Zalduak, 27-11 irabazi zion Ordiziari, baina mutilenak 30-14 galdu zuen, erraz, Ficoba Bidasoarekin Irunen. Amaitzeko, infantil mailan, mutilen Hierros Servandok garaipen eroso lortu zuen Pulporen aurrean (29-7); nesken taldeetan, Urkotronikek 9-11 galdu zuen Neolith Oriorekin eta Grupo Mecalbekoek 23-12 gainditu zuten Ordizia Eniro.



Aitor Hernandez hirugarren eta laugarren ziklo-kros denboraldi hasierako probetan

Specialized-Ermua Innpulso taldeko txirrindularia podiumera igo zen zapatuan Kantabriako Cartescross-ean eta zulaketa bat izateak laga zion podiumetik kanpo domekako V. CX Los Corrales de Buelnan. AEB-etan lehiatutako Kevin Suarez nagusitu zen proba bietan Ismael Estebanen aurretik, eta Los Corralesen 23 urtetik azpiko Xabi Muriasek hartu zion aurrea Ermukoari. Biharko Urduñako probarekin hasiko da Euskal Federazioaren egutegia.



35 mendizale Artzaintza Naturbidearen seigarren etapan

Bioitza eta Zudaire lotu zituen ibilbidea osatu zuten Klub Deportiboko mendi **bartzordeak antolatutako** irteeran parte hartu zuten 36 lagunek. Artzaintza Naturbidea ibilbidearen seigarren etapa horretan *"eguraldi onarekin, Urbasako baso eta zelaietatik zehar, Pilatosen Balkoia deritzon amildegira arte"* joan ziren. Handik Bakedanora jaitsi ziren *"pagadi eta haritziz betetako eremutik"* eta hortik Zudaireira jo zuten txangoa amaitzeko.

Hiru domina eibartarrentzat jiu-jitsuko Europako Kopan

Aurreko asteburuan Valentzian jokaturako jiu-jitsu brasildararren Europako Kopan Jonatan Terron eta Javi Lassa urrezko dominarekin bueltatu ziren. Jonatan Garciak zilarrezkoarekin konformatu behar izan zuen finalerdietan min hartu eta finala jokatu barik geratu zelako. Aitzol Galarraga izan zen Eibarko laugarren ordezkaria txapelketa horretan. Jiu-jitsuko hurrengo lehiaketa Eibarren jokaturako den Espainiako Koparen laugarren edizioa izango da.



Muguruza judokak brontzea lortu zuen Espainiako Kopan

Aurreko zapatuan Getafeko Juan de la Cierva kiroledegian jokaturako absolutu mailako Espainiako Kopan, Nekane Muguruzak lan bikaina egin zuen, brontzea eskuratzeko senior mailan. Berarekin izan

zen baita Imanol ere; azken honentzat lehenengo esperientzia izan zen maila horretako lehiaketa batean. Guztira, 198 kirolarik hartu zuten parte. Asteburu honetan Iruñean izango dute hurrengo erronka, senior mailako Espainiako Kopan hor ere: "Biek ordezkaturako gaituzte berriro".



Errugbiko gizonen taldea puntu barik etorri zen Bilbotik

Hasieratik atzetik joan ziren markagailuan eibartarrak eta, borrokatu arren, amore eman behar izan zuten amaieran Universitario Bilbaoren aurrean (33-24). Atsedendaldian gutxigatik galtzen zuten


Ohorezko B mailako Eibar Rugby Taldekoek (19-17) Errekaldeko El Fango zelaian. Aurreko zapatuko porrotarekin, Gaston Ibarbururen jokalariek jokaturako lau partidutik hiru galdu dituzte liga hasieran; as-

teburu honetan atsedean hartuko dute eta hilaren 20an Unben Ourenseren kontra jokatu beharreko partidua prestatzeko aprobetxatuko dute. Beharko dute, orduan ere, zaletuen bultzada.



Emakumezkoen garaipen erraza

Avia Eibarko emakumezkoek Euskal Ligako bigarren partidua ere irabazi zuten aurreko zapatuan Unben jokaturako norgehiagokan. Talde bakoitzak hamabi jokalarirekin jokatu zuen, Durango RT-ri jokalaririk falta zitzaizkielako, eta eibartarrek, beharren arabera, jokoaren sistema aldatzea lortu zuten. Konfiantza osoz jokaturako partidua 89-0 bereganatu zuten eibartarrek.



Pello Osoro hirugarren izan zen Bilboko triatloian

Iron man distantzia erdian Bilbon jokaturako proban eibartarrak podiumera igo zuten, helmugan hirugarren izan eta gero. Pello Osorok 1,9 kilometro osatu zituen igeri egiten, 90 bizikleta gainean eta beste 21 arineketan, eta bigarren aldiz igo da podiumera proba horretan. Bestalde, Eibarko taldearekin parte hartzen duen Joseba Tamayo elgoibartarrak domekan 70.3 Lanzarote Iron man proban hartu zuen parte eta bere mailako 13. postuan amaitu zuen. Uretako zatia bertan behera geratu zen, eguraldiak hala behartuta.



Joseba Tamayo Lanzaroten

Jokin Alonso 27 urteko eibartarrak urrezko domina lortu du Spartan Race oztopo lasterketan, Estatu Batuetan (Lake Tahoe, Kalifornia) irailaren 29an jokaturako munduko txapelketan.



Jokin Alonso, Spartan Race-ko munduko txapeldun

- Munduko txapelduna izan berri zara Spartan Race oztopo lasterketan. Nola sentitzen zara?

Lehenik eta behin, nire adinakoen artean irabazi dudala (25-29 adineko kategorian) esan beharra daukat. Kategoría absolutuko irabazlea izatea oso urrun gertzen zait, baina poliki-poliki distantzia txikiagotzen doa. Hasieratik bakarrik joan nintzen bukaerara arte. Azken bi kilometroetan lehenengoa heltzeko aukera nuela

konturatu nintzen, baina oraindik zazpi oztopo gelditzen zitzaizkidan. Egia esanda, gauzarik hoberena korrikalarietara eta lagunak nitaz esandakoa izan da. Guztia hitz onak izan dira eta hori niretzat oso garrantzitsua izan da, ezin izango dut inoiz eskertu. Oraindik ez dut sinesten munduko txapelketa irabazi dudala.

- Nolako izan da munduko txapelketan parte hartzeko Estatu Batuetara bidaiatzearen esperientzia?

“Nire familia eta lagunei betidanik eman didaten laguntza eskertu nahiko nieke”

Hau nire bigarren urtea da Spartan Race munduko txapelketan. Laz laugarren heldu nintzen, baina orkatilan lesioa izan berri nuen eta ez nuen asko entrenatu. Hala ere, oztopo bakarrean huts egin nuen. Urte honetan askoz gehiago entrenatu dut, baina hiru oztopotan huts egin dut. Normalean ez dut hainbeste huts egiten, baina ziurrenik hotzarekin zerikusia izan du. Udako erroparekin joan nintzen -ez nuen hotz handia espero- eta Donostia aldeko Denontzat gimnasiokoei, Ismael Mateori batez ere, eskertu behar diet euren erropa guztia eskaini izana. Azken momentuan eurek lagatako eskularruei esker eskuak bero-bero mantendu ahal izan nituen-eta. Egia esan, urduri ibili nintzen goiz hartan. Gainera, lasterketaren hasiera bi ordu atzeratu zen eguraldi kaxkarra zela-eta. Elurra eta izotzarengatik zailagoa izan zen mediku-zerbitzuak lasterketako puntuetara eramatea eta horregatik atzeratu zen. Lasterketa horren oztopo zailena hotza eta hai-



Jokin Alonso helmugaratzen Lake Tahoeko munduko txapelketan.

zea izan dira; esaterako, 0° azpitik igeri egin behar izan genuen eta elurra ere egin zuen une batzuetan. Gorputza bero mantentzea izan da zailena, proba hauetan eskuek ondo funtzionatzea nahitaezkoa delako oztopoak gainditzeko.

- Azalduko zeniguke zer den Spartan Race? Zertan datza?

Spartan Race munduko oztopo lasterketen (OCR) artean ezagunena da, eta ibilbidean zehar oztopo ezberdinak gainditzeko datza (hormak, soka-igoera, igeri egitea, kargak eramatea, etab.). Oztopoko lasterketak bi arlo garrantzitsutan sailka ditzakegu: Spartan Race eta beste gainerako OCRak. Spartan Race lasterketetan, oztopoak nahitaezkoak izan arren, aukerako oztopoak badaude: hau da, oztopoa gainditu ezin baduzu, 30 burpee egin behar dituzu horren orde. Gainerako OCRtan oztopo guztiak nahitaezkoak dira eta, oztopo batean trabatuz gero, nahi adina aukera dituzu; baina, ezin baduzu oztopo hori gainditu, lasterketan bertan emandako eskumuturrekoa mozten dizute eta zure lasterketa han amaitzen da. Bueno, jarraitu dezakezu, baina egindako denbora ez da kontuan hartuko.

- Zergatik erabaki zenuen mundu horretan murgiltzea? Noiz eta nola?

Txikitatik kirol munduan murgildu izan naiz, nire aita betidanik bizikletan ibili da eta. Ez nintzen ia pedaletara heltzen, eta pedalada erdia aurrera eta beste erdia atzera ematen hasi nintzen. Nerabeen korrika egitea oso aspergarria iruditu zitzaidan. Urteak pasa eta Strava aplikazioa ezagutu nuen. Horrekin "pikatzen" hasi nintzen, hor gure inguruko kirolariak egindako ibilbideak eta erritmoak agertzen baitira, eta eurekin denborak konparatzeko aukera duzulako. Korrika egiten hasi nintzen eta oso argal gelditu nintzen.



Ipueruako gimnasiora joaten hasi nintzen eta 2016ean Bilboko Spartan Race-era joan nintzen, Alex Gonzalez eibartarrarekin. Primeran pasatu genuen eta handik aurrera lasterketak ondo prestatzen hasi nintzen. Egun 25 Spartan Race egin ditut munduan zehar (Espainia, Andorra, Frantzia, Italia, Estatu Batuak...). Gainera, lasterketa hauetan jende asko ezagutzen da eta oso giro polita sortzen da horien inguruan.

- Garaipen honen atzean esfortzu handia dagoela ukaezina da...ezta ?

Bai, entrenamendu asko dago atzean. Gehiena korrika egitea, eta azken bi urtetan CFE gimnasioan ibili naiz eta asko hobetu dut haiei esker. Esan beharra daukat nire koadrilako Enekok (@bazman_science) asko lagundu didala. Bera-ri esker asko ikasi dut kirol munduari buruz, denboraldi batean berarekin entrenatzen egon nintzelako. Gaur egun nire kabuz nabil, baina orain entrenadore batekin berriro hastea pentsatzen ari naiz. Ardura askoz handiagoa da eta horrek

atzera bultzatzen nau, horregatik nabil bakarrik oraindik.

- Nolakoa da zure egunerokotasuna? Nola bateratzen duzu kirola zure eguneroko bizitzarekin?

Lanean hasi nintzenean zaila izan zen kirola eguneroko bizitzarekin bateratzea, baina azkenean ohitzen joaten zara. Gaur egun Gazteizen nabil lanean kalitateko ingeniari bezala, automobil-industria arloan. Oso giro ona dago bulegoan eta gehienok kirola egiten dugu eguerdian. Normalean korrika egitera irtetzen naiz astero hiru-lau egunetan, batzuetan Juan Zubiaurre eibartarrarekin (lagunekin entrenatzeak asko laguntzen du). Arratsaldeko azken orduetan Crossfit egiten dut beste bi-hiru egunetan.

- Munduko txapeldunaren domina izanda, zein erronka dituzu aurrerantzean?

Esan dudanez, nire adinakoen mailan lortutako domina izan da. Hurrengo erronka nire adineko Europako txapelketa irabaztea eta Espainia mailan kategoria absolutuan podiumen bat lortzea da, baina ikusiko dut, pausoz-pauso. Urte honetan bigarrena izan naiz Europako txapelketan, baina nire ustez European lasterketak gogorragoak dira, malda gehiago izaten dutelako.

- Zer gomendatuko zenioke kirol honetan hasi nahi duenari?

Hasieran, lagunekin ondo pasatzeko inguruko OCR motz bat egitea open kategorian. Kategoria horretan laguntza jasotzea onartuta dago. Horretarako, gutxienez korrika pixka bat egitea eta gimnasioan goi-atala zertxobait lantzea gomendatuko nuke. Ahaztu aurretik, nire familia eta lagunei betidanik eman didaten laguntza eskertu nahi diet.

Instagram-ean jarraitzeko:

@enjoynering92



Jokin bere lehenengo Spartan-ean,
2016an Bilbon.



MAITANE CAMPOS: Aterpe bila.

Donostiko Londres hotelak XXI. Gipuzkoako Pintxo Lehiaketa hartuko du urriaren 15ean, 16.00etatik aurrera. Lurraldeko taberna onenek hartuko dute parte txapelketan eta euren barrak apaintzen eta bezeroen gutuziak asetzen dituzten pintxoak aurkeztuko dituzte. Aurten, gainera, Eibarko parte-hartzaileak izango ditugu lehendabiziko aldiz.

Eibarko bi ordezkari Gipuzkoako pintxo onenaren lehian

Euskal Herriko taberneta-ko ikurrak dira pintxoak eta, era berean, taberna asko ikur bihurtu dira euren sukaldeetan egiten diren pintxoengatik. Gosaltzeko, hamaiketako egiteko, bazkaltzeko, meriendatzeko edo afaltzeko balio duten mokaduak dira pintxoak. Euskal Sukaldaritza Berriak gure gastronomiaren altxor hau beste maila batera eraman zuen eta izarrez beteriko tabernek miniaturazko jaki gozoak lantzen hasi ziren. Beraz, Gipuzkoa mundu mailan Michelin izar kontzentrazio gehien dituen herrialdea izanik, Gipuzkoako Pintxo Lehiaketa ez da ume-jokoa.

Tiburcio Eskisabel ibili da XXI. Gipuzkoako Pintxo Lehiaketa antolatzen. *"Txapelketa udaberrian egin ohi dugu, baina antolakuntzako idazkaria hil zen eta udazkenara pasatu behar izan genuen"*, dio telefonoaren beste aldetik. *"Bestetik, udazkenean gastronomiaren inguruko ekintza ugari ditugu inguruan eta ez da erraza izan data aurkitzea"*.

Eskisabelek esperientzia asko du pintxoak egiteko orduan.

Donostiko Alde Zaharreko *Casa Tiburcio* tabernaren buru izan da urte askoan, 1929an bere aitxitxa eta amamak sortutako negozioaren lekukoa hartuz. Lehiaketako epaimahaia ere ez da hasiberria gastronomiaren munduan. Hauek izango dira Gipuzkoako pintxo onenak dastatuko dituzten epaimahai-kideak: Cristina Martinez eta Josema Azpeitia kazetari gastronomikoak, Alfonso Garcia Valladolideko *Don Bacalao* jatetxeko sukaldaria, Alberto Egizabal Arnedoko Sopitas jatetxeko sukaldaria, Josu Mugerza Elgoibar-ko *Belaustegi* jatetxeko sukaldaria eta Mireia Alonso *Teknikerreko* jatetxeko sukaldari eibartarra.

Epaimahaiak itsu-itsuan probatuko ditu 20 parte-hartzaileen pintxoak. *"Euskal Herriko txapelketan parte-hartzaileek zuzenean ematen die pintxoak epaimahaiari, baina Gipuzkoakoan gela aparte batean egongo dira"*, Eskisabelen berbetan. Parte-hartzaile bakoitzak zazpi pintxo aurkeztuko ditu, *"bat aurkezteko eta beste sei-rak epaimahai-kide bakoitza-*



Mireia Alonso eta Tiburcio Eskisabel zapatuko Sagardo Egunean elkartu ziren.

rentzat", eta hiru irabazle egongo dira. Ez da baldintza berezirik jarriko pintxoak lantzeko orduan, *"pintxoaren kostua 2,5 eurotik ez pasatzea bakarrik"*. Gero, ohikoa denez, parte hartzen duten tabernen barran aurkitu ahal izango dira pintxoak.

Eibartar bi

Eskisabelen berbetan *"maila handiko"* parte-hartzaileak egongo dira. *"Hondarribiako Gran Sol eta Sardara tabernak, eta Donostiko Zeruko taberna, besteak beste"*. Ez dira arerio errazak izango Gipuzkoako

Pintxo Lehiaketan parte hartzen duten lehen taberna eibartarrentzat. Baratze tabernako Unai Altuna eta Kontent tabernako Oscar Trebiño izango dira ordezkari eibartarrak eta herriko tabernetan ekimen honi jarraipena emateko itxaropena dute antolatzaileek. *"Pozik gaude Eibarko tabernek parte hartzen dutelako"*, Eskisabelek dioenez. *"Lehen pausoa ematea izaten da zailena"*. Gainera, Mireia Alonsok esan digunez, badaude datorren urtean parte hartzeko asmoa duten taberna eibartar gehiago.



Baratze tabernako Unai Altuna bere lan taldearekin.



Kontent tabernako Oscar Trebiñok esperientzia handia du sukaldaritzan.



MARTA TORRES
(antzerki zuzendaria)

“Ipuinen bitartez umeen izaera bustitzen da”

Giambattista Basile napolitanoak 1636. urtean idatzi zuen Errauskineren lehen ipuina. Ordutik istorioaren hainbat bertsio idatzi dira eta ‘Teatro de Malta’ konpainiak ‘Errauskine XXI Mendea’ izeneko antzezlanaren ekarriko digu bihar 17:00etan Coliseora. Mende honetako Errauskine aurkeztuko digu Marta Torresek zuzentzen duen antzezlanak.

- *Nolako da XXI. mendeko Errauskine?*

Maisuki antzeztutako pailazo ikuskizun bat ikusiko du publikoak. Protagonistak instrumentistak dira gainera eta musika joko dute zuzenean. Oso dramaturgia zirkularra duen ikuskizuna da. Hau da, antzerkia du antzerkiaren barruan. Baliteke umeek kontzeptu hau ez arrazoitzea, baina antzerkia toki komun bikaina da belaunaldi ezberdinetako jendearentzat eta helduek oso momentu atsegina pasa ahal izango dute. Errauskineren istorio klasikoaren argumentu berdina du, baina generorolak apurtu ditugu. Errauskinek ipuin klasikoan bizi duen egoera berdina bizi du, baina neska indartsua, ausarta eta segurua da. Printzea, berriz, mutil sentibera eta ameslaria da, eta beste batek noiz erreskatatuko duen zain dago.

- *Printze eta printzesen istorioak iraganeko kontuak dira?*

Nire antzerkiarekin ez diet umei ezer erakutsi nahi, munduarekiko dudak ikuspegi azaltzea bakarrik (nagusientzako antzerkia egiten dudanean bezala). Ipuin klasikoek umeen hezkuntza baldintzatzen duten generorolak eramaten dituzte eta gauza bi egin ditzakegu horren aurrean: batetik, umei azaltzea ipuin horiek beste errealitate batean kokatuta daudela; edo bestetik, ‘Errauskine XXI Mendea’ lanarekin egiten saiatu naizena, hau da, ipuin horiek kontatzea generorolak apurtuz. Pertsonen osakeraren oinarri indartsuak dira ipuinak. Ipuinen bitartez umeen izaera bustitzen da.

- *Ipuin klasiko hauek berrikustea komeni da?*

Baietz uste dut eta hori egiten dut ipuin klasiko hauek esku artean ditudanean. Esan bezala, diren moduan aurkeztu daitezke ipuin hauek, baina umei argi utziz iraganeko errealitate batean kokatuta daudela. Zer da aldaketa gehienak gelditzen dituen gauza? Estereotipoak. Etxean eta ipuinen bitartez ikasten ditugu, besteak beste, eta oso zaila da estereotipoak apurtzea. Beraz, ia derrigorrezkoa izan beharko litzateke fikzioaren bitartez igortzen dugunaz jabetzea.

- *Antzerkia belaunaldi ezberdinak biltzeko toki egokia dela diozu. Antzezlanean igortzen den mezua gurasoek entzutea komeni da?*

Gaur egun kalitate handiko antzerkia egiten da umeentzat eta, esan bezala, familientzat toki komun bikaina izan daiteke. Gorakada konpainiak eskaintzen dituen antzezlanak, adibidez, esperientzia ederrak dira ume zein helduentzat. Umei zuzendutako lanak dira, baina interpretazio- eta ekoizpen-maila handia dute.

- *Pailazoak egonda, antzezlanean ez da umorerik faltako, ezta?*

Asko gustatzen zait umorearen bitartez lan egitea. Denetarik egiten dut, drama ere, baina irteeran publikoa sartzen denean baino pixka bat alaiago egotea gustatzen zait. Positibitate duen antzerkia eskaintzea gustoko dut. Gainera, umorearen bitartez edozer gauza kontatu daiteke eta umorea drama bezain hunkigarria izan daiteke.



Jose Agustin Gurrutxagarentzat I. Ojanguren argazki-lehiaketako sari nagusia

Zapatuan bildu zen Indalezio Ojanguren XXXII. argazki-lehiaketaren epai-mahaia eta Indalezio Ojanguren Ohorezko Saria argazki-bilduma onenari saria Bergarako Jose Agustin Gurrutxaga Garagarzari ematea erabaki zuen, “Urko” bildumarengatik. Horrekin batera, Indalezio Ojanguren saria Jose Manuel Maiquez Mijaresek, Oskar Manso Navasek, Juan Antonio Palaciosek eta

Jose Ramon San Jose Ruigomezek irabazi dute. Euskal Herri mailako saria Manu Barreiro Rodriguez, Markel Ruiz Aranzeta eta Bakarne Elejalde Garatagoitiak eskuratu dute. Eta herri mailako sariak Pedro Arriola Arrizabalagak, Oskar Baglieto Aranok eta Virginia Arakistain Ariznabarretak irabazi dituzte. Edizio honetan 37 parte-hartzaile egon dira, 55 bilduma eta 173 argazkirekin.



Umorez betetako antzezlanarekin dator gaur Coliseora Cesar Sarachu

Gaur 20:30ean hasiko da Entrecajas Producciones Teatrales konpainiaren "Intensamente azules" antzezlan Coliseo antzokian. Cesar Sarachu aktorea protagonista duen lanaren zuzendaria Juan Mayorga da eta, diotenez, gaur taularatuko duten lanak "umore eta imajinario asko ditu". Kontatuko duten istorioan, betaurrekoak apurtuta dituenez, graduatuta dituen igeriketako-betaurrekoak janzen ditu Cesar Sarachu aktoreak. Betaurreko urdinekin bizitza beste modu batean ikusten hasten da eta, aktpreak berak aurreko astean kaleratu genuen elkarrizketan kontatu zigunez, publikoari barrea eragingo dioten momentuak eskainiko ditu eszenatoki gainean. Sarrerek 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Kim Lenz Band-ek joko du domekan Portalea musika-klubean

Etzi, 19:30ean hasita, Portalea musika-klubeko urriaren kontzertuarekin izango dugu hitzordua. Oraingoan Kim Lenz Los Angeleseko musikagile, abeslari eta gitarra jotzaileak bisitatuko gaitu, adituek diotenez: "XX. mendeko rockabillyak XXI. mendeko emakumearekin egin du topo". Kritika bikainak jaso ditu Lenzek Estatu Batuetan eta Europan egindako biretan eta, Rolling Stone aldizkarian esan dutenez, "Elvis emakumea izan balitz, ziurrenik Kim Lenzen antzera abestuko luke". Berak konposatu eta ekoitzi du ia bere errepertorio osoa eta argitaratu berri duen Slowly Speeding bere bosgarren albumak blues eta countryra ere hurbiltzen gaitu. Jaguars taldearekin egin du azken bira eta bere azken diskoak Roy Orbisonen eta Chris Isaaken eragina du, bai eta David Lynch-en giroa ere, "zorioneko heldutasunarekin". Betiko moduan, sarrera 10 eurotan dago, Coliseoaren Laguna izanda 3 euro merkeago.



Musika Banda Coliseoan

Udako etenaldia eta gero, asteburu honetan itzuliko dira Cielito Musika Bandaren ohiko kontzertuak Coliseo antzokira. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, domekan, 12:30etik aurrera honako egitaraua eskainiko dute: "Suspiros de España" (Antonio Alvarez), "El Sitio de Zaragoza" (Cristobal Oudrid), "Doña Francisquita" (Amadeo Vives), "1492 The Conquest of Paradise" (Vangelis) eta "Camilo Sesto nº1" (Carlos Sanchez-Barba). Bestalde, ez bada euririk, kontzertuaren aurretik, 11:15ean kalejira egingo dute musikariek.

Txistularien kalejira

Domeka goizean, 10:00etatik aurrera, Usartza Txistulari Taldekoak kalejiran ibiliko dira herriko kaleetan zehar. Txistulariak Untzaga plazatik abiatuko dira.




Barreari buruzko tailerra

Lacasiunek, Eibarko emakume latinoen elkarteak "Barrea bizitzarako baliabide bezala" izenburuko tailerra antolatuko du. Helburua barrea praktikatzea izango da. Urriaren 20an (domekan) izango da tailerra, Portalean, 10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 20:30era. Dohainik eta gazteleraz izango da. Izena emateko Andretxeara emaila idatzi daiteke (andretxea@eibar.eus), 943700828 telefono zenbakira deitu edo Whatsapp bidez (688 85 34 40). Azken eguna urriaren 16a izango da.

Txopitearren erakusketa 20ra arte

Urriaren 20an amaituko da Daniel Txopitea (1950-1997) eta Ainize Txopitea aita-alaben arteko erakusketa. 1998an eta 2009an Eibarren egin ziren Daniel Txopitearen bakarkako erakusketen ondoren, orain "Re_encuentro" aita-alaben arteko atzera begirako erakusketa ikus daiteke Portalean, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.





“Esperpentos con chispa y fuego” estreinatuko du La Novenak

Ikasten elkartearen baitan sortutako La Novena antzerki taldeak “Esperpentos con chispa y fuego” antzezlanaren estreinatuko du datorren eguaztenean, 20:30ean Coliseo antzokian. Ernesto Barrutia aktoreak zuzentzen duen lan honetan parte hartuko duten antzezleak Asun Sarasua, Maribel Cascan, Isa Gonzalez, Eli Iriondo, M^a Jesus Saez, Araceli Bono, Patxi Mutiloa, Jesus Perosanz, Miguel Alberdi, Carmen Muruamendiaraz, M^a Angeles Nagore, Begoña Moro eta Ernesto Barrutia bera dira eta Juan Luis Agi-

rrek, berriz, pianoarekin lagunduko die. La Novena antzerki taldearen ikuskizunarekin “ondo pasatzea” bilatzen dutela azaldu du zuzendariak. Besteak beste, kontuan izan behar da parte hartzen duten aktoreak amateurak direla. Lan honetan guztiz ezberdinak diren lau istorio kontatuko dituzte eta antzezlanak egoera komiko ugari biltzen dituela aurreratu digu: “Grotoskoak dira oso eta, beraz, barreak eta dibertimenduak modu naturalean egiten dute bat”. Sarrerak 5 euro balio du.

Jardunaldi Mikologikoek 21. edizioa biziko dute hurrengo asteburuan

Urriaren 18tik 20ra arte, hiru egun horietako ekintzak prestatu dituzte Eibar-ko Klub Deportiboko mendi batzordekoek XXI. Jardunaldi Mikologikoen barruan. Hilaren 18an, barixakuan, “Urola Kosta Bailarako Perretxikoak” izenburuko hitzaldia eskainiko dute Aranzadi Zientzia Elkarteko Unai Fernandez eta Joxepo Teresek Deporren bertan, 19:00etan. Zapatuan perretxikoak biltzeko mendi-irteera antolatuko dute, Eibarko eskoletako haur eta gurasoekin: “Lizarrusti eta Marieta aldera joateko

asmoa dugu, eguraldia lagun badugu behintzat”. Hori bai, bilketa jasagarria izateko aholkua jaso dute: bakoitzak ezingo du bi ale baino gehiago bildu eta taldeak, gehienez, 20 jaso dezake. Arratsaldeko 16:00etan Deporren batuko dira, Aranzadikoekin batera, perretxikoak aukeratu eta sailkatzeko. Domekan, azkenik, urterokari jarraituz, perretxikoen erakusketa, dastaketa eta salmenta egongo da 10:30etik 14:00etara Toribio Etxebarria kalean, “eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko



arkupeetan”. Jardunaldiak direla-eta, Deporreko tabernan “txanpi-pintxoak salduko dira barixaku eta zapatuan”.



Udal Euskaltegiaren ikasturte hasierako ekitaldia Portalean

Martitzen arratsaldean Portaleko areto nagusiak hartu zuen ekitaldiarekin hasi zuen ikasturte berria 35 urte betetzen dituen Udal Euskaltegiak. Sorkunde Juaristi Euskaltegiko zuzendariak, Patxi Lejardi Euskara saileko zinegotziak, Arantza Iriondo Udal Euskaltegiko idazkari akademikoak eta Jokin Azkue HABEren zuzendariak egin zuten aurkezpenaren bidez Eibarko Udal Euskaltegiak sorreratik gaur egunera arte izandako ibilbideari erreposoa eman zioten. Esandakoaren arabera, urte hauetan guztietan 8.000 ikasletik gora izan ditu Udal Euskaltegiak. Azpimarratu zuten, hizkuntza bat ikasteak beti eskatzen du ahalegin bat eta, horregatik, erakundeek zein irakasleek euskera ikasi nahi dutenei gauzak erreteza dagokiela azaldu zuten. Ordezkariek berba egin eta jarraian, Beatriz Egiababal antzezleak bakarrizketa eskaini zuen.

Urriaren 20ra arte egongo da martxan Liburu eta Disko Azoka

Gaur goizean zabaldu dute Eibarko Liburu eta Disko Azoka Untzaga plazan. Udalak, Euskadiko Liburu Ganbararekin elkarlanean antolatutako azokan, ohikoa den bezala, euskal literaturako zein musikagintzako lanik berrienak eskainiko dituzte, deskontu bereziekin, gainera. Urriaren 20ra arte egunero zabalduko dute, astelehenetik barixakura bitartean 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.





The Travelling Brothers Big Band ERMUAN

Gaur 22:15ean kontzertua emango du The Travelling Brothers Big Band taldeak Ermua Antzokian. Seikote bizkaitarraren curriculuma ohorezko matrikula eskuratzeko modukoa da, eta halaxe erakusten dute datuek: 16 urte, 8 disko eta 1.000 kontzertu baino gehiago. "Sarrerak agortuta" kartela jartzea zerbait arrunta bihurtu da taldearentzat; eta orain, Big Band baten laguntzaz, Ermua Antzokiko eszenatokira igotzeko prest daude, ikus-entzuleei esperientzia ahaztezina eskaintzeko. Sarrerak 12 euro balio du.



"Negarrik ez tour" jaiak SORALUZEN

Bihar, zapatua, Soralezeko Plaza Berrian, frontoian eta gaztetxean "Negarrik ez tour" jaiaren edizioa ospatuko dute. "Espetxeak suntsitu" lemapean hainbat ekitaldi antolatu dute egun osorako: eguerdiko 12:00etan "Azken negarraldia" izango da Plaza Berrian; 14:30ean bazkari beganoa egingo dute frontoian eta, bazkal osteko kantaldian, Añubeko Trobak eta Gadugik hartuko dute parte; azkenik, gaueko 22:00etan kontzertua izango da gaztetxean, Alikuli Klan eta Fly Shit taldeekin.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Juan M^a Anitua Unzetabarrenetxea. 87 urte. 2019-X-3.
- Javier Mallagarai Manchovas. 90 urte. 2019-X-4.
- Emilia Garcia Benedited. 82 urte. 2019-X-5.
- Iñaki Larrañaga Eguren. 61 urte. 2019-X-5.
- Ernesto Lizarralde Aizpurua. 61 urte. 2019-X-6.
- Guzman Santos Treceño. 88 urte. 2019-X-7.
- Emilia Urdangarin Zurutuza. 80 urte. 2019-X-7.
- Serafin Perez Quintas. 85 urte. 2019-X-8.
- Sabin Ibaibarriaga Ansorregi. 86 urte. 2019-X-9.
- Jose Gerenabarrena Longarte. 80 urte. 2019-X-9.

jaiotakoak

- Izaro De la Fuente Segundo. 2019-IX-27.
- Paula San Martin Saez. 2019-X-3.

farmaziak

- Barixakua 11
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 12
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 13
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Astelehena 14
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 15
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 16
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Eguena 17
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 18
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

3	7	1	8	9	6	4	2	5
5	6	9	2	1	4	7	8	3
2	8	4	3	5	7	6	1	9
8	4	5	6	3	1	2	9	7
7	1	3	9	4	2	8	5	6
9	2	6	5	7	8	1	3	4
6	5	2	7	8	9	3	4	1
1	9	7	4	2	3	5	6	8
4	3	8	1	6	5	9	7	2

			7	8	4		6	
	8		5			9		
	5		4					
	6			1				3
		1				8		
5			9				1	
				6		3		
		8		5		4		
2		7	1	9				

Barixakua 11

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

BILERA

18:00. Nalua Eibarko talde feministak deitutako bilera irekia. Portalean.

ANTZERKIA

20:30. "Intensamente azules" (Entrecajas Producciones Teatrales). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 12

LIBURU AZOKA

12:00/14:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

ANTZERKIA

17:00. "Cenicienta siglo XXI" (Teatro de Malta). 5 euro. Coliseoan.

HERRI-KROSA

18:00. VII. Asier Cuevas proba. Irteera eta helmuga Toribio Etxebarria kalean.

Domeka 13

KALEJIRA

10:00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira. Untzagatik hasita.

LIBURU AZOKA

12:00/14:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

MUSIKA

12:30. Eibarko Cielito Musika Bandaren kontzertua, Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta. Euririk ez bada, 11:15ean kalejira egingo dute. Coliseoan.

MUSIKA

19:30. Kim Lenz Band-en kontzertua (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean (areto nagusian).



Astelehena 14

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatua eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BIDEO-FORUMA

18:30. Clara Campoamor idazle eta politikariari buruzko saioa (Emakumeen Istorioak). Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Jarduera doakoa eta irekia. Portalean.

Martitzena 15

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Jostintza-tailerra. Portalean.

JARDUNALDIAK

18:00. "Sexu-lana: lan eskubideak, sindikatzea edo esplotazioa". Hizlaria: Conxa Borrell Bernaus (Otras sindikatuaren idazkari orokorra). Doan. Portalean (areto nagusian).

Eguaztena 16

IKASTEN

09:12. Ibilaldia: Zumaia-Zestoa. Bazkaria eraman Trenaren irteera ordua, Ardantzatik.

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Tecnologia berriak eta sare sozialak" ikastaroa, DBHko ikasleen gurasoentzat. Gaztelaniaz. Irakaslea: Nekane Jacinto (Baikara). Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

ANTZERKIA

20:30. "Esperpentos con chispa y fuego" (La Novena). 5 euro. Coliseoan.

Eguena 17

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta
17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatua etxean.
19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Urriaren 20ra arte:

– **"RE_ENCUESTRO", DANIEL TXOPITEA & AINIZE TXOPITEA (Portalea)**

Urriaren 31ra arte:

– **ENRIQUE LORENZOREN ARGAZKIAK (El Ambigú taberna)**

– **PEDRO ARRIOLAREN "NAPOLES" ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)**

– **DEPORTIBOKO PILOTA TALDEAREN ARGAZKIAK (Klub Deportiboa)**

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, EKAIN, astelehena 9 urte bete zenuaz-eta. Musu handi bat famelixaren eta, batez be, Gariren partez.



Zorionak, NAIA, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Musu handi bat famelix guztiaren eta, batez be, Alaitzen partez.



Zorionak, JULEN, martitzenian 10 urte beteko dozuz-eta. Jaso besarkada handi bat etxekuen eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak, LAIA, martitzenian 7 urte egin zenuaz-eta. Musu potolo bat famelix guztiaren partez.



Zorionak, ARTZAI!!!, gaur 3 urte bete dozuz-eta. Musu handi bat etxekuen eta, batez be, zure anai Koikilli eta lehengusuen partez.



Zorionak, NICOLAS, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Aitxitxa-amama eta famelix guztiaren partez.




Zorionak, URKO, zure 5. urtebetetzian. Musu handi bat famelixaren partez.



Zorionak, IZARO, atzo 11 urte bete zenuaz-eta. Ondo pasau, etxeko guztien partez.



Zorionak, MARKEL, domekan 3 urte betetzen dozuz-eta. Musu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN eta LAIA, 16 eta 6 urte bete dozuez-eta. Musu potolo handi bana etxekuen partez.



Zorionak, AINHOA (aurreko domekan 9 urte) eta MICHEL (atzo 6 urte) Unanue Thobie. Etxekuen eta Lukas euren anaixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

12an: 19:45, 22:30

13an: 20:00

14an: 20:30

"@buelos"

Zuzendaria: Santiago Requejo



(2 ARETOAN)

12an: 19:45, 22:30

13an: 17:00, 20:00

14an: 20:30

"Bienvenidos al barrio"

Zuzendaria: Mohamed Hamidi



(ANTZOKIAN)

12an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

13an: 17:00^(1 aretoa), 20:00

14an: 20:30

"Joker"

Zuzendaria: Todd Phillips



(ANTZOKIAN)

12an: 17:00^(2 aretoa)

13an: 17:00 -EUSKERAZ-

"Manou"

Zuzendaria: Christian Haas



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-521840.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 681-013032. Carla.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Opel Corsa 1400, 90 cv, Eco (GLP) salgai. 2017koa. 7.000 kilometrorra heldu gabe. 9.990 euro. Tel. 658-714437.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Bi trasteleku salgai Julian Etxeberria kalean. 7'80 eta 9'64 m². Tel. 667-635797.

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai Eibarren. Tel. 686-280395.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da tailerlean piezak mekanizatzen lan egiteko. Tel. 632-569245.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 632-700803.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-140707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-881161.
- Neska eskaintzen da etxeak, tabernak edo soziedadek garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 605-659535.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Emakumezkoa eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Ziurtagiriarekin. Tel. 681-013032.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 622-142679.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, pegorak garbitzeko eta pintore jarduteko. 21 urteko esperientzia. Tel. 664-819748.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-223075.

- Emakumezkoa eskaintzen da ospakizun berezietarako sukaldari moduan: bazkariak, meriendak, postreak... Janari marokoarra. Tel. 698-308503.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-893312.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Orduka. Tel. 658-385055.

- Emakumezkoa eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Tel. 665-974354.

- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-115184.

- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta mantenimenduan lanetarako. Tel. 667-272620.

- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldeaz umeak zaintzeko. Tel. 665-733162.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 641-426528.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 602-850826.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 612-201719.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-605632.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-310989.

- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 2 urteko esperientzia. Tituluarekin. Tel. 631-627419.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-735551.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Formakuntza eta erreferentziak. Tel. 622-809011.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Orduka. Tel. 643-707623.

- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 677-689227.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 612-296098.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 612-556910.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-398596.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-532426.

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. HHko tituluarekin. Tel. 644-355050.

4.2. Langile bila

- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ilepaindegi zentro baterako. Langiro bikaina. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Irakasle partikularra behar da heldu bati trikitia jotzen irakasteko. Tel. 615-784575.
- Ingeniaritza ikasketak hasi dituen ikasleak irakaslea behar du. Tel. 636-523804.

5.2. Eskaintzak

- Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erre-suma Batuan) ingelesezko klaseak ematen ditu. Ume eta helduentzako maila guztiak, kasu bakoitzera egokitutako ikas-erremintekin. Tel. 617-265575. Avelina.

- LHko klase partikularrak ematen ditu. Magisteritzako formakuntzarekin. Tel. 605-746908.

- LHn graduatua eta aisialdirako begirale tituludunak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 665-606832.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Baita diskoteketako baso-azpikoak eta pospolo-kaxak ere. Tel. 688-624326.

6.2. Eman

- Sehaska oparitzen dut, koltxoi eta babesleekin. Tel. 652-716135.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Azukrea neurtzeko makinatxo galdu da estutxe beltz batean, Urkizu inguruan. Tel. 626-409235.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai KONA Hibrido elektriko berria

Bluelink
konektagarritasunarekin



MOVE Smart programa

hileko **220** €-tik aurrera

220€ko 47 kuota
Sarrera 6.199,00€
Azkeneko kuota:
11.124,94€
T.A.E. %7,82

- + 5 urterako bermea km-mugarik gabe
- + 5 urterako errepideko laguntza
- + 5 urterako mantenimendua
- + 5 urterako mapen aktualizazioa
- + Itzultze konpromisoa MyHyundai

Hyundai Kona Hibrido elektriko Berriak gidatzeko gozamina beste maila batera igotzen du. Teknologia adimentsuari eta Bluelink konektagarritasun sistemari esker, zure smartphonearekin kontrolatu ahalko duzu une oro. Gainera, **Find May Car** sistema berritzailearekin, non aparkatu duzun gogoratzen ez duzunean aurkitu egingo duzu autoa. Kona Hibrido elektriko Berria Hyundai Kona Gama osatzera dator, eta **Espainiako 2019ko Urteko Kotzerik Onena** izendatu dute. Kona familiako kide berriak kotxe hibrido batengandik espero duzuna baino gehiago eskaintzen dizu.

Baina hau hasiera besterik ez da. Prest zaude? Etorrizun hibridoa zain dugu. Zer izango da hurrengoa?

ABC 2019 Con etiqueta ECO

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

Erakusketa berria
ARRASATE
San Andres Auzoa, 6
943 79 70 06



5 KM MUGARIK GABEKO BERMEA

8 URTE BATERIA BERMEA

Hyundai KONA HEV Gama: CO₂ emisio konbinatuak (gr/km): 114-122. Kontsumo konbinatua (l/100km): 5-5,4. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak. CO₂ emisioak (gr/km): 90-99 NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortutakoak.

Hyundai MOVE Smart finantzazio adibidea Kona HEV 1.6 GDI 104kW (141CV) KLASArenak: Prezioa 23.890,00€. Sarrera 6.199,00€. Eskatutako kopurua 17.691,00€. Formalizazio-komisioa (T3): 530,72€ eskura. 48 hilabeteko epea. 220€ko 47 kuota eta azkeneko kuota 11.124,94€koa. TIN %6,50, T.A.E. %7,82. Zehaztutako kopuru osoa 21.995,07€. Eskaintza finantzazioa Banco Cetelem S.A.U.k aurrera eta aurrera behar du. PSP gomentatuta. Penintsula eta Balearren, BEZ, gantziak, matrikulario-erregia, sustapen-deklarazioa, kontzesionarioaren elkarpena eta mantenimendu-erakundea barne. Hyundai Adibidea Plana aplikatu daiteke erabiliko auto baten truke, 6 hilabetetarako. Hyundai berri bat erosten duen bazterrearen titulaturagorik. Finantzazioari lotutako gastuak ez daude barne (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak); www.hyundai.es/configurador/webgunean ikusgai. Eskaintza 2019/10/31ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modeluak: Kona HEV Style. Mantenimendua litalagailuaren finantzazioari lotua. Hyundai Motor España S.L.U.k bere azken bezeroei eskaintutako kilometro-mugarik gabeko 5 urteko bermea eta tentio alfuak bateriantzat 8 urtekoa edo 200.000 kilometrokoa (aurrera gertatzen dena) Hyundaiaren sare ofizialak salduzko Hyundai litalagailuetan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es/hyundaiMOVE webgunean.

KONTSUMO ARDURATSUAREN IV. AZOKA EIBARREN

2019ko
Urriaren 19an
Unizaga plazan

MARTXAN
JARRI!!

- Tokiko elikagai eta produktuen salmenta
- Finantza etikoak
- Energia berriztagarriak
- Bidezko merkataritza
- Ume zein helduentzako tailerra
- Erakusketa
- Antzerki saioa
- Txalaparta saioa
- Saski zozketa
- Produktu berziklatuak

Urriaren
19an
10:30etik
14:30era

Antolatzaileak:



Elkarlana:



Finantzatzailea:



Info +

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

2 mó/
progresibo, erreflexuen
aurkako lenteekin / 229€



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

www.multiopticasgipuzkoa.com   

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan